



uk

227. zenbakia / 2013ko otsailaren 12a



URTERO 20€

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
 Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
 Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
 Urtero argazki zahar eta barriak
 Urtero zure proiektuak lau haizetara
 Urtero 20 euro

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz neuk ere gura dot UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

Izan gaitezen praktikoak.
Dacia Sandero berriaren fidagarritasun osoa

4.700€¹ PIVE Planarekin

- ESP, ABS, SAFE
- 4 airbag
- Eguneko argiak
- Direkzio lagundua



3 URTEKO² BERMEA EDO 100.000 km

Dacia Sandero berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 4,8 eta 5,8 bitartekoa. CO₂ emisioa (gr/km) 99 eta 135 bitartekoa.

1. Adierazitako PSPa penintsularako eta Balear Uhartetarako da, eta 13/02/28ra arte iraungo du eskaintzak; partikular batek edo langile autonomo batek Sandero Base 1.2 55 kW (75 ZP) berria eros dezan, PIVE Planeko baldintzak, deskontuak eta zergak kontuan hartuz eta RCI Banque S.A. Sucursal España erakundeak finantzatuz. Gutxienez finantzatu beharreko zenbatekoa 4.000 €-koa izango da. RESCAk diruz lagundutako deskontua, finantziarioari lotuta dagoena eta Sandero Berria gamako edozein ibilgailu aplikagarri zaiona. Irudiko modeloa: Sandero Laurate 1.2 75 ZP berria (PSPa PIVE Planarekin: 7.050 €).

2. Bermea lehen bi urteetarako, kilometro-kopurua edozein dela ere. Bigarren urteik aurrera, 2 baldintzetako bat gertatzen denean amaituko da bermea. Daciak gomendatzen du 

BILBO BERRI. Jon Arrospeide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO. Iparragirre Etorbidea, 24. tel. 94 480 42 90. Leioa www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
 ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarnubia, Irantzu Sagaminaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamosas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Bizkaiko Foru Aklundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Kultura Saila
 Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Gerra Zibil eta Frankismoko biktimea getxoitarrei gorazarrea.
6. FACEGUK. Zelan ospatuko duzu Balendin deuna?
7. LEHEN ETA ORAIN. Berango, 50. hamarkada.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Rosa Toledo.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Punta Galeako Olatu Erraldoien Txapelketa.
28. ARGAZKIA. Karmen elizako inguruak.
30. BERBETAN. Natxo Gonzalez.
34. FOTOGRAFIA. Miguel Azera.
40. SAKONEAN. Eskola txikiak.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Zinegoak-eko filmen emanaldiak eskualdean.
43. MUSIKA. We are Standard-en disko barria.
44. LIBURUAK. Liburu Gaztea lehiaketa.
45. KIROLAK. Getxo Rugby-ren 25. urteurrena.
46. ELKARRIZKETA. Dead Bronco musika taldea.
47. JENTILKOKA. Mikelats eta Atarrabi.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Ahate lumatxoak.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Udondotarrak Berangon, 1965.
54. AITORMENAK. Asier Sota Jaimereña.

Azala: Martin Mendez

www.ukaldizkaria.biz



30 Natxo Gonzalez

Berbetan

Hamazazpi urteko surfari plentziarrek irabazi du Punta Galeako Olatu Erraldoien Txapelketa.



11 Rosa Toledo



54 Asier Sota

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Armando Llamosas

> arkeologoa

Kultura txikiko ekintza handiak

Kulturak bi tamaina ditu. Esker onekoa, *onena*, *errentagarri(en)a*, Guggenheim edo museo handietan dagoena, eta egunkarietako kultura-orrietan agertzen dena: Hor dago Botero, hor musika ekitaldi erraldoiak, guztiak oso ezagunak. Kultura hori oso garrantzitsua da, zabaltzen gaituelako, beste esperientziak erakusten dizkigulako eta kultura *zaleak* ez diren asko erakartzen dituelako, hau da hazteko. Baina, beste kultura bat ere badago: eguneroko kultura, keinukoa, ez-nabaria, diru gutxikoa, fotokopia irakurgaitzarena, edonongoa, gure auzokoa, gure elkarte-etatik, herrietatik eta udaletatik sortzen dena. Eta, ordea, askotan, ez dugu nabaritu kultura dela, ezta atzean dagoen lana ere.

Gabonak urrun daude, baina orduko ekitaldi txiki bat ekarri nahi dizuet. Algortako Geltokia plazan Getxoko eskolek bere Bertsolaritza lana azaldu ziguten. Hiru multzo geunden han. Batetik, irakasleak: bertsolariak, bertsozale amorratuak, adituak... bere lana azaltzeko gogotsu. Bestetik, neska-mutil gazteak (asko umeak). Izan behar denez, formalak, traketsak, lantsuak, gibel-handiak, onetik ateratzeko modukoak... guztiak beren bertsoekin zeuden, bikainetik *kutrena*, hau da, ikasleak. Azken multzoa, publikoa, gehienak gurasoak, argazki makinekin, lerdea zeriela. Batzuek piperrik ere ulertu gabe, bere lehenengo-edo bertsolaritza saioa *irentsi* zuten. Askotan, beren seme-alabak ikusi ondoren, ospa egin zuten. Aitortu behar dut beheko ikuskizuna, kioskokoa baino interesgarriagoa iruditu zitzaidala une batean.

Hasieran pentsatu nuen amorrua eman behar ziela irakasleei hainbeste lan egin ondoren, beheko interes eskasa. Baina, ondo aztertu ondoren, sekulako kultura-lana egiten ari zen Geltoki plazan. Gurasoek, askok, bertsoak entzuteko aukera gehiegi ez dute izan, erdaldun eta tradizioz gabe inguruan gaude-eta. Teknika ulertu ez arren, askotan ezta hizkuntza ere, gure herriko kulturako ikur garrantzitsua eta bitxia ikusi zuten,



eurena izango balitz bezala, *eurena* baita. Neska-mutilek, joko eta lotsa artean, hizkuntza lantzen ikasten zuten, hau da, bere burua lantzen. Gurasoei bertsolaritza, hizkuntza eta kultura hurbildu zieten, ohiko-tzat, normaltzat har dezaten; batzuetan euren gusturik ez da izango, baina gure kulturako beste ezaugarri bat da.

Irakaslea izatea zaila da, are eta gehiago, testuingurua etsaia denean. Ni ez naiz oso bertsozalea, ez dut ondo ulertzen haren me-

kanismoa, ez dut ondo barneratzen; baina, une hartan, ondo ulertu nuen plazan, agian konturatu gabe, kultura-ekitaldi itzela egiten ari zela, tamaina txikiko kultura handia. Ilusioz betetako jende anonimoak eta ahaztuak horrelako ekimen asko egiten ditu, eta egin ditu gure kaleetan eta gure esparru txikietan, jaietan, antzokietan... Pentsa dezagun anonimo eta ahaztu horien ilusioek betetzen eta eratzen dutela gure izaera, gure kultura. ○ [Argazkia: ALBE]

gu geu

Balendin eta olatuak

Lurretik begiratu diegu olatu erraldoei, eta horien beldur ez direnakaz eta mendean hartzen dituztenakaz berbetan egon gara; geu ere ausartuko garelakoan...

Mozorroak jantzita zoratzen ibili ostean, Balendin deunaren inguruan plazan gira eta bira dabilzan eroen poztasunak eta horiei begira daudenen zorabioak ezagutzeko gogoei ezin eutsi... Batetik, egun horretarako ospakizun (ez-)moduengatik galdetu dugu Faceguk atalean... Agian, ospatzeko hain gitxi dugun honetan, aukera dugunean ospatu beharra aldarrika daiteke, kontua da zelan! Ziurrenik, "opari fisikoak" oso interesgarriak lirakete... Besteik, ezkontze-bidean daudenak ere ekarri ditugu irudietara, Fotografia atalean...

Eta gu ere zoratu gara! Edo maitemindu?! Ala mozarrotu? Ala olatutzar batek irentsita hondoa jo eta... ez gara konturatu? Mozorrotu, zorabiatu, zoratu...

Olatuaren gandorretik zein ederra den bizitza!!!!

UK-ko lan-taldea



Gorazarre...! Gerra Zibilean, lehenagoko gerrate zibiletan eta Frankismoan Getxon izandako biktimei gorazarre egin zien Udalak otsailaren lehenengoan, hirugarren urtez, Galeako ibiltokian dagoen *Liburuaren oroimena* eskulturaren alboan. Aurrekoa dantzatu eta loreak eskaini zizkieten hildakoei. Udalean ordezkaitza politikoa daukaten alderdi guztiek parte hartu zuten ekitaldian, baita biktimen senide batzuek ere. Udalaren asmoa azaldu zuen Getxoko alkate Imanol Landak: "*Biktimak ez ahaztea eta, etorkizunari begira, bizikidetasunean oinarritutako begirada igortzea; barrira gerta ez dadin*". ○ / Argazkia: Hodei Torres

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zelan ospatuko duzu Balendin Deuna?



Berango

Janire Aurrekoetxea

> ikaslea

Nik ez dut inoiz ospatu egun hori, maiteminduen eguna esaten diotena. Izan ere, komertzioek dirua irabazteko eguna dela uste dut, horregatik ospatzen dela, eta ez dut gustuko.



Algorta

David Urrutia

> irakaslea

Nik ez dut ospatzen, baina bikoteki-dea dutenak normalean animatzen dira zerbait egitera. Nire ustez aitzakia da oparixoa egiteko; egun komertziala da, hori edozein egunetan egin dezakezu-eta. Dena dela, gura duenak ospa dezala; pozik badago, ondo, disfruta dezala.



Algorta

Jon Uriarte

> arkitektoa

Nik ez dut sekula ospatu, ezta lagunek edo senideek ere. Azkenean egun komertziala da. Dendetan antzematen da ospakizun hori datorrela, baina giroan ez dut ezer nabaritzen: ez dut ikusten jenderik Balendin Deuna ospatzen.



Algorta

Asier Garcia

> irakaslea

Uste dut saltokien kontua dela, egun komertziala. Norbaitek bere nes-kari edo mutilari oparia egin gura badio aitzakia dauka egun horretan, baina nire ustez ez luke horrela izan behar; egunero egin ahal diozu oparia, egunero egin behar da zer edo zer.



Algorta

Ainara Kortazar

> ikaslea

Dendentzako gauza positiboa da, baina ez dut inor ezagutzen Balendin ospatzen duenik; nik behintzat inoiz ez dut ospatu. Uste dut dende-
tak edukitzeko dela, eurentzako eguna dela. Bikoteari egunero egin behar zaio oparia, ez bakarrik egun horretan.



Algorta

Lola Vadillo

> Administraria

Saiatuko naiz umea aitite-amamakaraz gera dadin eta senarragaz ospatuko dut, afari batez edo. Gustuko dut ospatzea, polita da, baina oparirik ez diogu egiten elkarri; guk ospatzen dugu elkarregaz bazkaltzera edo afaltzera joanez, gu bakarrik.



[lehen]

MANOL RODRIGUEZ MASTIGANE-K UZTIZIARI ARGAZTZA




[orain]

HOBI TORRES

Iraganez doa denbora* beti / BERANGO 50. HAMARKADA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > auto-ilarak



Getxo-Leioa, 2012

Testua: **Peru Vidal**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: "Izarren hautsa egun batean"

1

Lan egun gogor baten ostean etxera noa autoan. Gorbata kendu, musika jarri eta banoa atoaan. -Baina zer dabil horko kotxeal! Ama! Zelako malaletxea! Auto-ilarak gaurkoan. Zentzurik gabe goaz guztiak nork irabazi jokoan, edo artalde baten gisara bedar jateko asmoan. Nahiz (e)ta aurrean den karretera, nahiz (e)ta goazen denok batera bata bestea(re)n ondoan ez dakigu nora joan.

2

Bagoaz denak batera, baina geroz eta motelago. Sofan beharko nukkeen arren kotxean sartuta nago. Jartzen ari naiz horren haserre burua behar zaidala erre! Lasai nengoen lehenago; eta gainera dirudi egon behar dugula luzaro, sakon arnasten saiatu arren, pazientzia akabo. Oraindik gaude lehen bezala, (e)ta minutuak joan ahala jartzen naiz urduriago, eta ezin dut gehiago!

3

Umore onez eta gogotsu sartu naiz lehen kotxera, ordu erdi bat errepidean eta haserre etxera. Puzten ari zait lepoko zaina, aurrera ezin dut egin baina! Egunero gauza bera, haserrealdi honetan berriz ez aurrera, ez atzera. Baina akabo, gehiago ez naiz egongo gaurko antzera. Agur kotxeak, agur estresak, agur oihuak (e)ta agur presak! Zeren bihartik aurrera metroz joango naiz lanera.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu bertan agertzea gura zenukeen argazkia eta hemen ikusiko duzu, bertso eta guzti! uk@aldizkaria.biz



Julio Sotok jantzi du txapela azken bietan

bertsolaritza > Nafarroako txapelketa

Abian da Nafarroako 41. Bertsolari Txapelketa. Azken-laurdenak otsailean izango dira; finalurrekoak martxoaren 2an Atarrabian, hilaren 3an Etxarri Aranatzan eta hilaren 9an Elizondon, eta finala, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian martxoaren 23an (17:00). 31 bertsolarik parte hartuko du: Iñigo Olaetxea, Amaia Elizagoien, E. Lazkoz, Oier Lakuntza, U. Uberetagoena, Ior Tainta, Aritz Saragueta, X. Silveira, Ai-


mar Karrika, E. Gorosterrazu, Oskar Sanz de Acedo, Oskar Estanga, Josu Sanjurjo, Alazne Untxalo, I. Aleman, Iban Garro, Patxi Castillo, Erika Lagoma, Saioa Alkaiza, A. Fuentes "Itturri", Ekaitz Astiz, J. Soto, Xabier Maia, Migel Elosetegi, Haizea Beruete, Jon Barberena, Ainhoa Aranburu, Julen Zelaieta, Iker Gorosterrazu, Eneko Fernandez eta Joxema Leizaetak. ○

Info+: www.nafarroakotxapelketa.com

trukea > zesta punta plataforma

Trukerako, gauzak partekatzeko plataforma, zerbitzua eskaintzen du Zesta Punta webguneak. Londresen bizi den Ed Freyogle informatikaria buru duen eta Iker Velez de Mendizabal, Maria Onzain, Marta Goya eta Mamen Zabala bizkaitarrek, Jon Lizarraga nafarrak eta Greziako Spiros Denaxasak osatzen duten taldeak kudeatzen du Zesta Punta. Kirolaren izena metaforatzen hartuta, jendeak dagoe-

neko behar edo gura ez duena bota eta errebotean gogoko edo behar duena jaso dezake. Horrela definitzen dute ekimena: nahi duzuna lortzeko dirua gastatu gabe, jendeari behar ez dituzten gauzak banatzen laguntzeko, elkarrekin ondo pasatzeko zerbitzu denbora zailetan... Euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez dago zerbitzua eta *Facebook* bidez eman beharko duzu izena parte hartzeko. ○



Info+: www.zestapunta.com



Info+: www.aldarte.org

trans gida > hezkuntza eta gazteei begira

Aldarte, Bilboko Gay, Lesbiana eta Transsexualen Arretarako Zentroak, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzagaz, *Trans Gida* argitaratu du; transexualitatearen gaineko zenbait ohar, elkarrizketak eta ariketa praktikoak jasotzen dituena. Egileek azaldu dutenez, gazteak eta nerabeak transexualen errealitatera hurbiltzea da gidaren helburua; transexualitatea zer den eta zelatan uler daitekeen azalduz, transexualen

bitzita moldatzen duten aldeak modu errazean agertuz; benetako gizonezko eta emakumezko transexualen errealitate eta esperientzietan oinarritzen da, euren ekarpenak eta elkarrizketak jasoz... Azpimarratu dutenez, "helburu nagusia gazteek gida irakurtzea eta transexualitateari buruzko hausnarketa egitea da. Halaber, hezkuntza arautuko edo aisialdiko profesionaletzako tresna bilakatzea nahi genuke". ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



**ERANDIO ELIZATEKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA**

**XII. IPUIN LEHIAKETA
ETA
V. BERTSOPAPER LEHIAKETA**



2013
MMXIII



Oinarriak ikusteko eskaneatu kode hau eskuko telefonoarekin

Azken eguna: 2013ko martxoaren 22a

Informazioa: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

Babesleak:




BFA DFB

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAIA
Hizuntza Politikoaren Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística




[erretiratu]

“Abarketa guztiek irregulartasunak dituzte, ez dituzu berdinak diren ale bi topatuko”

Rosa Toledo > Abarketak, pasio eta ofizio

Iraganean, abarketak herri-xeheari lotutako oinetakoak ziren; zapatarik erosteko dirurik ez zuten lagunek janzen ei zituzten. Baina modaren mundua guztiz aldatu da, eta gaur ‘modan’ ez dagoena, bihar egon daiteke, eta etzi, batek daki. Abarketaren kasuan, barbarako, gero eta ohikoagoa da polo eta beste jantzi ‘elegante’ batzuek batera jantzita ikustea. Areetako ‘La Alpargateria’ dendakoak trantsizio horren lekuko izan dira. Orain 30 urte zabaldu zuen Rosa Toledok, Juan Fernandez ‘Juantxu’ senarra zenagaz batera: “Hamar urtez Mesedeetako kalean egon ginen, eta gero Ibaiganera etorri ginen”. Beste hainbat produktu saltzen dituzten arren (abarkak, zapatak, jantzi tradizionalak, e.a.), abarketak dira dendako protagonista: “Ez dugu Areetan zapata-denda hutsa izan gura, abarketak dira gure sinboloa, eta ‘bertakoa’ bultzatu gura dugu”. Gainera, guzti-guztiak eskuz egiten dituztela nabarmentzen dute, merke-merke, 6,80 euroan saltzen dituzte: “Abarketa guztiek irregulartasunak dituzte, ez dituzu berdinak diren ale bi topatuko. Izan ere, ez dago abarketak josteko makinarik, denak eskuz egiten dira. Hori hunkigarria da”. Zazpi seme-alabek filosofiarri eutsi, eta negozioagaz jarraitzeko asmoa dute, beti ere euren aita, ‘Juantxu’, gogoan: “Oso zoriontsuak gara hemen, eta honegaz jarraituko dugu, gure aitaren omenez”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Hodei Torres**

Udal-eraikin barriak prest

Algortako Etxe Sorginduaren barritze-lanak **amaituta**, bertan kokatuko dira **Euskara Zerbitzua** eta **Antolaketa saila**; gainera, **Herritarrentzako Arreta Bulego** barria zabaldu dute **Areetan**

Eraikin barri bi estreinatu ditu Udalak: Etxe Sorgindua eta Areetako Elkartegia: lehenengoan, hainbat zerbitzu kokatuko dituzte eta, bigarrenean, herritarren arretarako bulego barria.

Algortako Etxe Sorginduaren barritze prozesua amaitu da eta bertan kokatuko dira, hemendik aurrera, Getxoko Udalararen Euskara Zerbitzua (orain arte Aiboako institutuaren eraikinean) eta Antolaketa, Langile eta Informatika saila (orain arte Algortako Aingeru etorbidean); Basagoiti kaleko 20.ean dago eraikin ezaguna. Udalarena da 1982az geroztik eta Eusko Jaurlaritzak kultura-ondare izendatu zuen. Milioi bi euroko aurrekontua izan dute barritze-lanak: *“berezko arkitektura-erazugarriak mantendu dituzte eta barruko gunek ordenatu, antolaketa-modu barri batez, eraikina ahalik eta gehien errespetatuz”*, azaldu dute udal-iturriek.

Eraikin horretan egon izan dira Hirigintza eta Arkitektura arloa, Kultur Etxea, Komunikazio arloa, Euskara, Informatika, Kalitatea eta Kontratazio zein Erosketa sailak, baita Harriluze Elkarte ere.

Fatxada ere barritu dute. Konposizioaren elementu danak jatorrizko material bardinakaz berreskuratu dituzte eta honako hauek mantendu: antzinako jantokia eta egongela zeneko sabaiaren eskaiolazko moldurak, zabaltzara heltzeko eskaileraren egitura eta egurrezko barrak, baita etxeko antzinako egongelako lanpara ere.

Etxe Sorgindua Hego Amerikako hiri arkitekturaren eredu da, kolonial erakoa,



Areetako Mesedeetako kalean dago HAB barria, Elkartegia eraikinean

eta estilo aldetik Frantziako barrokoaren, klasizismoaren eta arkitektura kolonialaren ezaugarriak nahasten ditu. Jose Olozaga Gallarretak agindu zuen etxea eraikitzea 1898an eta Francisco Ciriaco Menchacac egin zuen. Udalak erosi zuenean

“Etxe Sorgindura eroan dituzte Euskara Zerbitzua eta Antolaketa, Langile eta Informatika saila”

arrosa-kolorea emon zion eta horregatik deitu izan diote Etxe Arrosa ere.

Baina ez da hori Udalak estreinatu duen eraikin bakarra; izan ere, Herritarren Arretarako Bulego barria zabaldu dute Areetako Elkartegia eraikinean (Mesedeetako kalea, 13). Eraikuntza barria da, lehen kultur etxea zegoen tokian, hura

eraitsi zuten-eta; beheko solairuan ipini dute HAB barria: 75 metro koadro dauka eta Romoko Aurrezki Kutxa kalean zegoen bulegoaren ordezkoa da, azken aldian bertan eskaini da-eta arreta-zerbitzua.

Udalak dioenez, bulego barriaren helburua da kudeaketa-kopurua handitzea eta zerbitzu hori lokal modernoago eta egokiago batean eskaintzea.

HAB-z gainera, Getxolan-Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegurako Zerbitzuak eta Turismo gunea ere kokatuko dira eraikin barrian, horiekaz batera, KZgunea eta Elkartegia egongo dira, baita BiscayTIK proiektuaren osagarriak diren teknologia barriei lotutako enpresak ere. Getxon lau HAB dago eta iaz 127.698 gestio egin ziren, horietatik %26 Areeta-Romoko bulegoan. ○

Amadeo Torrens, onena Sasoi Sasoiari kirol-sariak banatu ditu Udalak



Faduran egin zuten gala urtarrilean

Amadeo Torrens bela-nabigatzailea aukeratu dute Getxoko 2012ko kirolari onena. Real Club Maritimo del Abra-Real Sporting Club elkarteko kide da, eta Espainiako bela-txapeldun. Sariak banatu zituzten urtarrileko galan.

Epaileek Torrens hautatu zuen botoen %31,25egaz. Bigarren lotu zen Maria Lopez de Eguilaz belar-hockey jokalaria, hirugarren Borja Zorrilla atleta eta laugarren Nerea Iturriaga txirrindularia.

Getxo Kirol Berriak taldekako sariak emon zioten Getxo Igeriketako emakume-taldeari eta CD Getxoko mutil gazte-taldeari. Gainera, Bizkerre Futbol taldeko emakumeen senior taldearen eta CD Getxoko futbol talde nagusiaren lana ere saritu zuten. Bestalde, sari bereziak emon zizkieten ondokoei: Marka Hautsiz

kirol egokituari saria, Asier Garcia saskibalo-jokalaria; Kiroltasuna saria ibilbideari, Jose Ramon Basterretxea Getxo Arrauneko partaideari; Getxo Berrituz saria barrikuntzari, Getxo Show Patinaje Artistikoko Elkarteari; Getxo Zabala saria altruismoari, Indupime, Romo eskubaloiren babesle ofizialari; eta Aitzindariak saria Jose Ramon Arrupe 82 urteko xake jokalaria.

Galan gogoan hartu zituzten zendutako hainbat lagun ere, Beti Gurekin orotzapen-sariagaz: Roberto Tamayo Bizkerre FT-ko zuzendaritza-kidea, Jose Ignacio Isla Bizkaiko Herri-Kirolak Federazio presidentea, Jose Luis Martinez Txispi Romo FT-ko zuzendaritzako kidea eta Jose Maria Muro Raspas Arraun Taldeko presidente ohia. ○

ANDEREÑOEN EKARPENA AZTERTUKO DUTE

Aintzane Rinconen eta Arantza Anzibarren proiektuak eskuratu du beka Getxoko historian emakumeek egindako ekarpena ikertzeko, ondoko gaiagaz: *“San Nikolaseko lehenengo andereñoak eta beren ekarpena ikastolaren hastapenetan (1963-1969)”*. Helburua da *“emakumeek historia eta bizitza kulturalen, sozialean, ekonomikoan edota politikoan egin duten ekarpena berreskuratzea eta ezagutzera emotea”*. Nerea Aresti EHUko historiagile eta irakaslearen laguntza edukiko dute ikerketa egiteko eta emaitza abenduaren 15a baino lehenago aurkeztuko dute.

GALEAKO ITSAS-ARGIA BARRITUKO DUTE

Galeako Gotorlekua mantentzeko eta zaintzeko hainbat jardura egingo du Udalak eta itsas-argiaren dorrea birgaituko du. EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Mineralogia eta Petrologia sailak, gainera, doktorego-ikerlana egingo du Gotorlekuko harriaren eta morteroaren narriadura zerk eragin duen zehazteko, Aranzadi elkarteak egindako ikerketa arkeologikoaren argibideei jarraituz. Daborduko hasi dira gotorleku ingurua eta landaredia sasiz zein zaborrez garbitzen.

‘MAIA EGUTEGIA’ KULTUR ARTEKO GIDARI BILA

Maia-egutegia ekimenaren ‘Kultur arteko gidariak’ programan parte hartzeko izena emon daiteke. Atzeritarrak euskal kulturara hurbildu gura ditu ekimenak, eta aldi berean bere ohiturak eta berezitasunak zabaldu. Horretarako, udalerriko kultura-jardueren batean gida izateko aukera emongo dute, baita kultur arteko turista izateko ere. Agate Deunan (otsailak 4), Inauterietan (otsailak 15-17) edo datorren martxoaren 17a baino lehen ospatuko diren jardueretan egingo dute gidariarena. Izena emoteko: kultuarartekogidak@gmail.com edota maiaegutegia.wordpress.com.

Info: www.getxo.net



Beherapenak
arropa salgai 12 eta 50 euro bitartean

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Koldo Salazar eta Iñigo Palomero > Erromoko Auzokideen Elkarte

“Proiektua gelditu eta auzoaren beharren araberrako kultur etxea egitea gura dugu”



Info+: vecinosderomo.blogspot.com

Getxoko Udalak apirilean ekingo dio lanari Romon kultur etxe barria eraikitzeko. Egitasmoa geldi egon da ia urte bian, hari buruz hausnartzeko. Prozesu hori amaituta, eraikina egiten hasiko dira, hasierako proiektu bera eta aurrekontu beragaz. Gaiari buruz eztabaida dago kalean eta Erromoko Auzokideen Elkarte ez dator bat proiektuagaz: kultur etxe bat beharrezkoa dela deritzote, baina proiektatutako eraikina baztertzan dute. Zergatik den horrela galdetu diegu elkarteko kide biri: Koldo Salazarri eta Iñigo Palomerori.

—Hausnarketaren ostean, Udalak apirilean hasiko ditu kultur etxearen lanak.

—Beno, hausnarketa euren artean egin dute agian, baina auzokideak ez. Eurakaz bilera bi izan ditugu guk, murruari buruz euren asmoen barri emoteko. Proiektu hau 2011ko hauteskundearen aurretik onartu zuten, eta orduan plaza inguruko auzokide batzuek protesta egin zuten, eraikinaren tamaina zela-eta. Euren gehitu gintzaizkien beste hainbat auzokide. Proiektua ordutik geldi egon da eta plaza ezin da erabili, murrua dago-

elako; gainera, gero eta zabor gehiago pilatzen ari da murru atzean. Udala mugitzen ez zela eta auzoan beste arazo batzuk daudela ikusita Auzokideen Elkarte berreskuratu genuen. Baina argi gera dadila ez gaudela kultur etxearen kontra, eraikinaren proiektu honen kontra baizik.

—Azkenean hasiko dira kultur etxea egiten, hasieran pentsatu moduan.

—Gure ustez ez da une egokiena horrelako inbertsio handiek eskatzen duten proiektu erraldoiak egiteko: Getxok 36 milioi euroko zor bizia dauka. Inbertsio

txikiagoagaz antzeko proiektua gauza liteke, oraingoak beste apaindurarik gabe. Romok sekula ez du izan horrela nabarmentzeko asmorik eta aurreztutako dirua laguntza sozialetarako erabil liteke.

«Getxoztar guztiei galdetu behar liekete zelako proiektua gura duten»

—Esan duzue auzoak agian ez duela behar tamaina horretako kultur etxerik.

—Udalak lehenik eta behin erabaki zuen obra handientsua eta erreferentziala egitea: helburua eraikina bera izan da eta ostean hasi dira pentsatzen zer egin eta sar zitekeen barruan. Gure ustez, alderantziz egin behar zen: lehenengo auzoaren behar azertu eta horien araberrako eraikina egin. Kultura kontzeptua ere badago; hau da, esaten dutenez Guggenheimek arrakasta izan duela, agian uste dute eraikin honek ere jendea erakarriko duela; baina hori ikuskizunaren eta espekulazioaren kultura da: esan dute 250.000 bisita jasoko duela urtero, eta hori ezinezkoa da; pentsa, Bilboko Arte Ederren museoak 200.000 jasotzen badu! Hala balitz ere, aparkatzeko daukagun arazoagaz, zelan bideratuko litzateke? Gainera, beste auzoetatik ez dira etorriko egunerokoan, kasu zehatzetan ez bada.

—Zer eskatzen diozue Udalari?

—Poiektua gelditzeko, hausnartzeko, auzotarrakaz hitz egiteko eta etorkizuneko kultur etxea auzoaren benetako beharretara egokitze. Gainontzeko alderdiak ere hitz egin lezake, ez dirudielako proiektuaren alde daudenik, nahiz eta hasieran bik aldeko botoa emon. Eta hau ez dago kigu bakarrik guri, dirua guztiona da eta getxoztar guztiei zehazki galdetu behar liekete zelako proiektua gura duten. ○

Algortan mozorrotzeko aukera badago oraindino, **otsailaren 16an ekitaldiak** antolatu ditu-eta **Jai-Batzordeak**



Otsailaren 15ean jokatu da musika-taldearen inauterietako lehiaketa

Mozorroakaz ase ez direnak zorioneko daude; izan ere, Algortan otsailaren 15ean eta 16an jarraituko dute ospatzen inauteriak. Barikua 15ean, Jai-Batzordearen inauterietako musika-taldearen lehiaketaren finala izango da Telletxen, 21:30ean: sailkatutako lehen hiru taldeek Algortako San Inazio jaietan joko dute.

Zapatua 16an, barriz, koadrilen mozorro eguna izango da. Mozorro lehiaketa egun osoan jokatu da, baina beste hamaika ekitalditan parte hartzeko aukera egongo da, Telletxen: 13:00etan, mozorro-jaietara abiatuko da eta lehiaketarako puntuatuko du; 15:00etan, herri-

bazkaria egingo dute; 17:00etan, bazkalosteko erromeria; 19:00etan, mozorro-poteoa izango da herrian eta, 22:00etan, erromeria. Dantzaldia bitartean sari banaketak ere egingo dituzte: mozorro-txapelketa, maketa-lehiaketa eta *Gure ondarea direlako ez utzi hondoratzen* delako zozketa.

Azken horretan lortutako dirua, hain zuzen ere, iazko inauterietan Portu Zaharrean hondatutako txalupak konpontzeko erabiliko da. Algortako Jai-Batzordearen eta Itxas Egurra Haizean elkartearen arteko ekimena izan da. ○

Info+: facebook.com/algortakojaiatzordea

DJ IKASTAROA UTOPIAN ANTZERKI ESKOLAN

Utopian Getxoko Antzerki Eskolak DJ ikastaroa eskainiko du eta izena emon daiteke otsailaren 20ra arte; Gaizka Peredak emongo du ikastaroa, danera 20 ordukoa. Eskolak hasiko dira martxoaren 5ean, eta martitzen eta eguenetan izango dira, 19:30etik 21:30era, antzerki eskolan (Makaleta etorbidea, 56). Peredak Audio Digital eta Soinu Ekoizpen masterra egin zuen Bartzelonako Salle unibertsitatean eta lan egin du, besteak beste, La Kinky Beat, Sorkun, Afrika, Maria de Medeiros, Lizz Wright edota Ramon Angel Rey-gaz.

Info+ eta izen-emoteak: 94 430 31 94

KONTZERTU KLASIKOAK MUSIKA-ESKOLAN

Martxoaren 2an hasiko dira XXVIII. Kontzertu Klasikoen errezitaldiak Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Fretwork biola-taldearen emanaldiagaz. Danetara hiru kontzertuk osatuko dute zikloa, danak zapatueta. Fretwork taldeaz gainera, martxoaren 9an kantatuko du Bogza sopranoak eta martxoaren 16an Miguel Ituarte pianista getxoztarrak. Emanaldiak 19:30ean hasiko dira eta sarreraren prezioa 8 eurokoa izango da (20 euro hiru kontzertuetarako abonamendua).

OLGETAN EUSKARAZ SAN NIKOLASEN ETA ZABALAN

Urteagaz batera ekin zion barriro 'Olgetan euskaraz' ekimenari Egizu Getxo Euskaldun taldeak, Algortako San Nikolas Ikastolan eta Zabala Ikastetxean. Hiru hilabetez luzatuko da, Aste Santura arte, eta zazpi talde dago, bost euskarazkoak eta beste bi gaztelaniazkoak: elkartzen dira 2-4 urteko umeak eta beren gurasoak asteen behin talde txikietan (4-6 familia), koordinatzaile bategaz. Matrikulazioa zabalik dago eta doan da: 685 732 963 telefonora deitu behar duzu. Gainera, ohiko tailerrak ere garatuko ditu Egizuk, Sendi proiektuaren barruan, barbarako: Sonportera bidaia; martxoaren 1etik 3ra izango da.

Info+ eta izen-emotea: www.egizu.org

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Lucia Gorbeña Etxebarria > GEUZ erakundeko zuzendaria

“Ikastetxeei ideiak emotea da asmoa, elkarbizitza eta bakea sustatzeko planak garatzen laguntzeko”

GEUZ Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroak jardunaldia antolatu du, Leioako Udalagaz batera, hirugarrenez: Proposamenak eskola-elkarbizitzarako. Otsailaren 21ean izango da, Kultur Leioan. Lucia Gorbeña Etxebarriak zuzentzen du zentroa.

—Hirugarren jardunaldia egingo duzue?
—Elkarbizitzaren eta bake-kulturaren arloan Leioako Udalararen ekimenen artean dago jardunaldia. Arlo horren barruan, era berean, gazteen, umeen eta hezkuntzaren eremuagaz lotutako ekimena da hau, eta inguruko eskoletan gaiaren lanketa bultzatzen lagundu gura du. Jardunaldiak hastapena izan gura du, daborduko hainbat eskolatan garatzen ari diren proposamenak aurkeztuz.
—Helburu nagusi bi daukazue jardunaldiagaz, zeintzuk dira?
—Batetik, proposamenak egin, lehen aipatu bezala, ikastetxeei ideiak emateko eta beren elkarbizitza-planei edukiak gehitzeko. Bestetik, benetako esperientziak partekatzea eta hausnarketarako aukera eskaintzea. Elkarbizitza eta bakea sustatzen segitu gura dugu eta ikastetxeei ideiak emon, legez danek eduki behar dute eta horrelako plan bat. Batzuek garatuago



Jardunaldietan izena emoteko: jardunaldia2013@geuz.es eta 675 715 661

eta beste batzuek zailtasunak dauzkate horien garapenerako, beraz, indartu eta orientatu gura ditugu.
—Nongo ikastetxeak parte har dezake?
—Edonork parte har dezake: Leioa mailan zabalduko dugu, baina Euskadi osoko ikastetxeak informatuko ditugu. Gurasoen eta hezkuntza arloko elkarteek ere parte hartuko dute.
—Esperientziak kontatuko dituzte bost ikastetxeek, horietako bi Leioakoak, ezta?

—Bata da Nuestra Señora de Las Mercedes, eta hitz egingo dute ‘Ikaskuntza eta zerbitzu solidarioa’ egitasmoari buruz. Bestea da San Bartolome Eskola eta jardungo dute ikaskideen arteko bitartekaritza proiektuari buruz; bitartekari gisa dabilzan umeak etorriko dira. Beste hiru ikastetxetako egitasmoak ere aurkeztuko dituzte: Santa Maria Ikastetxea (Portugalete), Zizur BHI (Zizur Nagusia) eta Zurbaren LHI (Bilbo). ○

Kultur Maratila prest!

Otsailaren 28tik martxoaren 3ra sei ekitaldi ikusi ahalko dira **Kultur Leioan**



Iragan perfektua obra estreinatuko dute Kultur Maratilaren barruan, otsailaren 28an

Artedrama Arte Eszenikoen Plataformak eta Kultur Leioak elkarlanean sortu zuten iaz Kultur Maratila programa, euskarazkoa bere osotasunean, eta aurten otsailaren 28tik martxoaren 3ra garatuko dute. Antzerkia, bertsoa, dantza, musika eta abar uztartzen ditu Kultur Maratilak. Ondorioz, euskal sorkuntzaz gozatu ahalko dute leioztarrek lau egunez, sei ikuskizunegaz.

Otsailaren 28an, *Iragan perfektua* antzezlan estreinatuko du Horman Poster kolektiboak, 20:30ean: Matxalen de Pedro eta Igor de Quadra dira antzezleak. Martxoaren 1ean, *Poza: zergatik dantzatzen dute bosnietarrek?* obra taularatu du Metrokoadroka Kolektiboak

20:30ean (aurrestreinaldia), eta *Bi arreba* bertso eta musika ikuskizuna eskainiko dute Xabier Lizasok (pianoa) eta Andoni Egañak (ahotsa) 22:00etan.

Biharamunean, martxoaren 2an, *Biutz* antzerki eta zirko ikuskizuna eskainiko du Rouge Eleak 20:30ean, eta Anari bakarlariak abestuko du 22:00etan. Azkenik, *Lingua Nabajorum* lana antzeztuko du Tartean teatroa/ Ez dok hiru bikoteatroak.

Sarreraren prezioa 6 eta 8 eurokoa izango da, baina abonamendua erosiz gero, 30 euroren truke ikusi ahalko dira ekitaldi danak, Auditoriumen, erakustaretoan edo Anbigun. Leloak dioen moduan: “Zabaldur maratila, ireki leihoa!”. ○

MARI CARMEN URBIETA, LEIOAKO ALKATE BARRIA

Eneko Arruabarrenak alkate kargua utzi du eta Metro Bilbaoko zuzendari kudeatzaile izango da hemendik aurrera. Ondorioz, Mari Carmen Urbieta alkateorde eta Hirigintza zinegotziak hartuko du haren kargua. 2007tik izan da Leioako alkate Arruabarrena, eta Udal Gobernu Batzordeko kide izan da 1999tik, Hirigintza, Etxebizitza, Obrak eta Zerbitzuak, Garraio eta Ingurugiro arloetako buru. Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziaduna da, baita Ekonomian diplomatua ere.

MAITASUNARI BURUZKO ZINEMA ETA ZINEGOAK

Martitzenero eskaintzen dituzte filmak Kultur Leioan Perseo Zineforum barruan, baita solasaldia egin ere, emanaldiaren ostean. Otsaileko zikloa da *Bikoteak vs. maitasuna* eta oraindino badago aukera film pare bat ikusteko: hilaren 19an, *Si de verdad quieres* eta, 26an, *Redencion*. Biak hasiko dira 20:00etan eta sarrera 2 eurokoa izango da. Bestalde, hil honetan beste ziklo interesgarri bat iritsiko da Leioara: Zinegoak. Bilboko zinema-jaialdian aurkeztutako hainbat pelikula erakutsiko dute otsailaren 13an eta 14an, beraz adil!

Info+: www.kulturleioa.com

2013KO AURREKONTUAK ONARTU DITU UDALAK

Urtarrilean onartu zituen 2013rako aurrekontuak Udaleko Osoko Bilkurak, EAJren eta EBren aldeko botoakaz; Bildu eta PPK aurka bozkatu zuten eta PSE-EE abstenitu zen. Aurten 34.072.174,45 euroko aurrekontua izango du Leioak, 2012an baino %8,8 gtxiago. Aurrekontu horregaz batera, gainera, Erakunde Autonomoen eta Elkarte Publikoaren aurrekontuak ere onartu zituzten: Soinu Atadia Fundazioak 2.047.681 euro izango ditu, Kontserbatorioa eta Udal Musika Eskola zuzentzen duenak, eta Euskararen Erakundeak 1.106.037,09 euro.

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guzietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargelzaleak, Sainua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Maria Luisa Alonso Corral > mende oso bat, eta urte askotarako!

“Denetik bizi izan dut: gerra, gerraostea... Orain, eguraldi ona dagoenean, kartetan egitera!”

Urtarrilaren 17an egin zuen ehun urte Astrabuduko Maria Luisa Alonso Corralek. Sestaorra da jaiotzez, baina auzoan bizi da orain dela 71 urte. Lotu barik ibili da beti eta mendeurrena ere ederto ospatu du, batetik senideakaz, bestetik lagunakaz.

—Zelan ospatu duzu urtebetetzea, zer egin duzu, Maria Luisa?

—Nahiko opari egin didate, batez ere lora-sortak. Eskerrak ospakizunak amaitu diren... Lehenengo, Algortan ospatu nuen familiagaz, gero bazkaria egin genuen lehengusu-lehengusinakaz eta, azkenik, beste bazkari bat egin genuen Batzokian, bertan elkartu ohi garen lagunakaz: 20tik gora egon ginen. Gainera, meza egin zuten eta aipatu ninduten. Lehen egunero joaten nintzen mezatara.

—Atsedean gitxi orduan, baina sortzez Sestaokoa zara, ezta?

—Sestaorra, bai. Ezkondu eta hilabete batzuetara Astrabuduan etxea erosteko aukera izan genuen, Mezo kalean. Orain urtebete arte bizi izan naiz han semeagaz, eta ni arduratzen nintzen etxeko lanetaz.

—Sasoitsu ibili zara; lotu barik?

—Ez naiz izan etxean lotzekoa, ez. Beti gustuko izan dut ateratzea, senarragaz lehen eta lagunakaz gero. Antzerkia eta



Maria Luisa Alonso Corral, etxeko egongelan

Zaruelak ikustera, zezenetara, e.a.

—Asko aldatu da mundua ehun urteotan, gauza asko bizi izan duzu?

—Ai ama! Gerra eta dana bizi izan dut nik, gerraostea, dendetan lapurretak, e.a. Gerra hasi zenean Madriletik etorri barria nintzen, han egon nintzen-eta izeko bategaz hilabete batzuetan. Baina gerragaz hona itzuli nintzen. Urduñan ere bizi izan nintzen txikitán, izekoren etxean lanean, gurean asko ginen-eta: 11 neba-arreba; bi bizi gara oraindino.

Zenbat lan egin dudán han, 9 urtetatik! —Gauza eder asko ere biziko zenuen?

—Adibidez, ezkontza: senarra ezin hobe izan dut, adeitsua, eta beti ibili gara elkarregaz aurrera eta atzera; duela 23 urte hil zen. Ezkongai nintzenezan Portugaletera asko joaten nintzen domeketan, *txitxarrillora* dantzara. Orain etxe-azpiko parkera, domeketan telebistan meza ikusi eta, eguraldi ona dagoenean, Batzokira lagunakaz kartetan egitera. Udabarria heltzen denean joango naiz barriro. ○

Konposta egiteko batu Bosgarren edukiontzia ipiniko dute eta azaltzeko bilerak izango dira auzoka



Info+: www.erandio.net

Bizkaiko Aldundiak laguntza emon du etxeko hondakin organikoen bilketarako edukiontzia ipintzeko: bosgarren edukiontzia delakoa. Beraz, ekimena zabaltzeko kanpaina abiatuko du Udalak.

Bilketa mota bi egingo dute: etxeetako eta saltokietako. Batez ere frutek eta barazkiek osatzen dute hondakin organikoa, eta konposta egiteko erabiliko da bildutakoa, ostean ongari moduan erabili ahal izateko. 2013ko lehen hiruhilekoan abiatuko dute bilketa.

Borondatezkoa izango da edukiontzia erabiltzea eta, horregatik, informazioa eskainiko du Udalak, informazio-guneetan.

Gaztelerauko bilerak puntuetan izango dira eta, euskarazkoak, eta erdietan (goizez 10:00etatik 14:00etara eta arrastiz 16:00etatik 20:00etara): Erandiogoikoako Euskadi plazan, otsailaren 14an, arrastiz; Altzagako Correos-en antzinako bulegoan, otsailaren 15ean arrastiz eta 16an goizez; eta Irailaren 23a plazan, hilaren 12 eta 19an, arrastiz; eta Astrabuduko ludotekan, otsailaren 22an arrastiz eta 23an goizez; eta Lubarri kalean, 13an eta 20an arrastiz. Parte hartzen duen etxe bakoitzeko “organikoaren kit” bana banatuko dute, ondokoakaz: ontzia, konposterako poltsak eta edukiontzia giltza. ○

ERANDIO FAMILIAN EZAGUTZEKO AUKERA

Herria eta bere ondarea bertatik bertara ezagutzeko programa abiatuko du laster Erandioko Behargintzak: Erandioko historia eta kultur ondarea ezagutzeko ibilbideak. Batez ere sendiei eta ikastetxeei zuzenduta dago ekimena, horrela “*herriko ondare arkitektonikoa ezagutzeko eta turismorako sustatzeko*”. Sei ibilbide izango dira eta horiei segitzeko gidak prestatu dituzte: material didaktikoa eta ludikoa, adin tarteka eta gaika sailkatuta. Berbarako, eraikinak ezagutzeko hainbat ibilbide dago, auzo bakoitzerako, baita arkitektura eta diseinua ezagutzeko ere. Laster emongo dugu informazio gehiago.

Info+: www.erandio.net

AZTERKOSTA ETA IBAIALDE ERAKUSKETAK

Azterkosta eta Ibaialde dira Ingurumen Hezkuntzako programak, eta kostaldeari lotutako ekosistema-egagutza bultzatu gura du, horien bidez, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailak. Programaren barnean dago erakusketa ibiltari bana eta Astrabuduan ikusi ahaliko dira biak otsailaren 18ra arte, Josu Murueta kultur etxean. Goiz eta arrastiz hurrera zaitezke panelak ikustera.

Info+: www.erandio.net

EUSKARAZKO ANTZERKIA ALTZAGAN

Euskarazko antzelean bi ikusi ahaliko dira hil honetan Altzagan, azoka zaharrean: *Goenkale: kondesaren erretratua* (Glu Glu produkzioak) eta *Zu ere on Kixote?* (Agerre Teatro). Lehen antzeztuko dute otsailaren 17an, domekan, 19:00etan. Bigarren lana, barriz, hilaren 23an, zapatuan, 20:00etan. Esatea bigarren lan horretan musikagaz uztartuko dutela antzerkia, ondokoek ere parte hartuko dutela: Abots Alai abesbatzak, Uztargi dantza taldeak, eta Imuntzo eta Beloki trikitilariek. Sarrera doakoa izango da bietan, ohi legez, eserlekuak bete arte.

Luberrí Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrí@euskalnet.net
www.luberrí.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarriztea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90€

BEZ BARNE

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

AUTODEFENTSA IKASTAROA MARTXOKO LEHEN ASTEBURUAN

Itzartu taldeak emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatuko du martxoaren lehenengo astebururako. Horrela, martxoaren 2an, zapatuan, Kurtzio kultur etxean autodefentsa ikasteko beta izango dute interesatuak. Ikastaroa, batez ere, emakume gazteei zuzenduta dago, baina oro har emakume guztiei. Ikastaroaren prezioa 10 eurokoa izango da, bazkaria barne.

OTSAIL OSOAN ZINEMA- ESKAITZA ZABALA

Sopelan, hilabete osoan bada ume, nagusi zein gazteentzako zinema-eskaintza interesgarria. Horrela, otsailaren 15ean, barbarako, Bilboko gay-lesbo-trans zinema eta arte eszenikoen jaialdia Sopelara helduko da; eta hori dela eta, otsailaren 15ean iluntzeko 20:00etan Kurtzio kultur etxean hainbat film labur eskainiko dituzte, sarrera doakoa izango da. Otsailaren 17an, ostera, umek Malutatxo filma doan ikusgai izango dute, Kurtzion arrastiko 18:00etan. Bestalde, otsailaren 21ean arrastiko 18:00etan Kurtzion genero perspektiba duen zinema ikusteko aukera izango da, *Pago Justo* izeneko filma, hain zuzen ere. Kasu honetan, aurrekoetan bezala, bertaratutakoek sarrera doakoa izango dute.

OTSAILAREN 17AN JAIZKIBELERA IGOERA

Bizkaiko itzuliaren laugarren etapan parte hartu ostean, Munarri mendi taldeak beste planei ekin die; horrela, otsailaren 17an Jaizkibelerara igoera antolatu du. Ekimen horren bidez taldearen eguna ospatu gura du, eta horretarako, bazkaria egingo dute zonalde horretako sagardotegiren batean. Horrenbestez, hortxe aukera, mendira joan, eta ondoren merezitako otordua hartzeko.

Info+: www.munarri.com

Korrika zein bizikletaz Otsailaren 16an Hirubi triatloi taldeak Sopelako VIII. Duatloia antolatuko du



Euskadiko Triatloi Federazioaren eta Udalaren laguntza du ekimenak. Info+: triationsopelana.org

Daborduko zortzigarren duatloi edizioa antolatuko du Hirubi taldeak otsailaren 16rako. Proba sprint distantzian korrituko da, eta sarrera zein helmuga udaletxe-plaza izango dira. Izenak dioen legez, proba bik osatuko dute lasterketa; korrikak, alde batetik, eta txirrindularitzak, bestetik. Parte hartzaileek lasterketaren lehen zatian korrika egin beharko dute, 5,2 km guztira; ondoren, bizikleta hartu eta 19,2 km egin beharko dituzte; eta azkenik, korrika beste 2,5 km. Horrenbestez, kirolariak guztira 26,9 km bete beharko dituzte lotu barik. Korrika

egiteko zatiak Sopelako erdigunean izango dira; txirrindulaz egitekoak, ostera, Sopelatik Barrikarantz, eta Plentziaraino, ondoren Urdulizerako norantza hartu, eta barriro Sopelara itzultzeko. Antolatzaileek aurreikusitako araberak, 250 duatleta espero dituzte. Aurretik, gainera, parte hartzea bultzatzeko helburuagaz diru-sariak izango dira txapeldunentzat; 350, 250, 150, 75 eta 50 euroko sariak egongo dira. Emakumezkoen proba 16:15ean, eta gizonezkoena 16:30ean hasiko dira; horratx kirola egiteko aukera! ○

Igor Erauskin > Sopesex zebitzuko arduraduna

“Nahiz eta gaur egungo gazteek informazio asko izan, ez daukate ordenatuta”



Telefono bidezko arreta: 668891334 / postaz: sopesex@sopelana.com / skype: [orientazio.zerbitzua](https://www.skype.com/redirect?contactname=orientazio.zerbitzua)

Orain dela urteak martxan jarri zuten Sopesex sexu aholkularitza zerbitzua, eta aurrera egin ez ezik zerbitzuaren erabilerrak gora ere egin du. Zerbitzuaren egoeraren barri izateko, Igor Erauskin arduradunagaz berba egin dugu.

—Gaur egun, zein bide erabil ditzakegu kontsultak egiteko?

—Hasieran, bi orduz astean hasi ginen zerbitzua eskaintzen; halere, krisia dela eta, gaur egun, astean behin, ordu bat eta erdi eskaintzen dugu. Udan, barbarako, zerbitzuaren eskariak behera egiten du; beraz, ez dugu horrelako eskaintzarik egiten, neguan soilik egitera mugatzen gara. Horrela, zerbitzua astero-astero eskaintzen dugu, 18:30etik 20:00etara. Gainera, gaur egun, harreman-moduak erre aldatu egin dira; beraz, aurreko kontsultez gain, messengerrean, telefonoz, postaz, baita skype bidez ere kontsultak egiteko aukera dago. Hala, kontsulta bideak gaurkotu ditugu, jendeak parte hartu dezan eta anima dadin.

—Gazteek bakarrik erabiltzen ete dute aholkularitza-zerbitzua?

—Zuzeneko zerbitzua 18 urtetik gorako gazteek erabiltzen dute, eta orain arte messenger bidez gurekin kontaktuan jarri direnek 18 urtetik behera dituzte. Halere, beti esan dugu: gazteei bereziki zuzendutako zerbitzua izan arren, asko dira gazteen errealitatea osatzen duten pertsonak: senitarteko, irakasle, hezitzaile, begiraleak e.a. Edozeinek egin ditzake kontsultak; orientazio hurbil eta eragingarria

«Asteartero, ordu bat eta erdiz, sexu aholkularitza zerbitzua eskaintzen da»

eskaintzeko helburua du zerbitzuak.

—Gazteek heziketa sexualari buruzko hutsuneak izaten jarraitzen dute?

—Nahiz eta gaur egungo gazteek informazio asko duten, ez dakite informazio hori zelan ordenatu. Eta gure zerbitzua gazteek daukaten informazio hori guztia ordenatzen laguntzeko saiakera da. ○

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentabx 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

URIOLAN AURREAN PLANA GARATZEKO ESKATU DU UDALAK

Berangoko alkateak adierazi legez, Gobela ibaia bideratzea beharrezkoa da. Izan ere, aurreko legegandien alderdi guztiek bat egin zuten ibaiaren bideratzearen alde, eta horrela jakinarazi zioten Jaurilaritzari. Halere, URA, Ur Euskal Agentziak ez du hasi ibaiaren bideratzea; hortaz, Landak espero du egoera aldatzea, eta urteetako aldarriari men egitea. Udal-eskariak Gobela ibaia bideratzea eta garbiketa batzen ditu.

OLIVER MAGIC SHOW-A OTSAILAREN 17AN

Hilaren 17an, domeka, haurrek zein nagusiek Berangoko mago ospetsuenagaz gozatzeko aukera izango dute Berangoko Antzokian. Ikuskizuna arrastiko 18:00etan izango da, eta sarrera 3 euroren truke eskuratu ahal da antzokian bertan.

KALERATZEEN INGURUKO MOZIOA ONARTU DA

Urtarrileko udalbatzan kaleratzeen inguruko mozioa eta protokoloa onartu zen. Mozio horretan azaldu legez, Berangoko Udalak, besteak beste, Espainiako Gobernuari eskatzen dio kaleratzeek kaltetu dituzten pertsonen babesgabetasun egoeragaz amaitzeko. Gainera, mozioan, Udalaren diren etxebizitzak kaleratuen zerbitzura jartzeko konpromisoa ere hartu dute.

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Aratustea heldu dira!

Otsailerako eskaintza zabala izango da Berangoko txiki zein nagusientzat



Hileko akabuko astean euskal inauterien protagonistak ezagutzeko aukera egongo da

Ugari dira Aratusteen harira Berangon izango diren ekimenak. Alde batetik, Berangoko Udalak umeentzat egindako eskaintza nabarmena da; izan ere, haur-liburutegian hilabete osoan Aratusteen presentzia handia izango da. Horrela, aurten Veneziako Aratustea gai nagusia izanik, hilaren 11n eta 12an aurretik ere egindako mozorro prestaketagaz jarraituko dute; hilaren 16an, zapatuan, txikiak zein nagusiak Berangoetatik pilotalekura abiatuko dira kalejiran, euren mozorro-jantziak erakutsiz. Hurrengo astean, barriz, otsailaren 18an, Berango-

ko haur-liburutegian Brasilgo inauteriak landuko dituzte eta hilaren 19ko arrastian murala eta collage-a egiteko aukera izango dute. Hileko akabuko astean, arrastiz, Euskal Herriko inauteriak eta pertsonaiak ezagutzeko beta izango dute. Baina, ez bakarrik txikiak, nagusiek ere, aratusteez gozatzeko unea izango dute otsailaren 16an; izan ere, Sei Herri elkarteak antolatuta, zapatu horretan, 19:30ean abiatuko da mozorro triki-poteoa Sabino Arana kaletik. Horrenbestez, ez duzu aitzakiarik, jantzi mozorroa, eta kalera! o

Gonzalo Duo > Uribe Kostako historia lau haizetara zabalduz

“Udalen eta Eusko-Ikaskuntzaren arteko hitzarmen kulturalak ugari dira”



Aurreko urtarrilaren 26an aurkeztu zuten liburua Plentziako museon

Argitaratu barri dute *Uribe Kosta eta Plentziako Historia. Gizarte dinamikak. XVI-XIX mendeak* izeneko liburua. Proiektuaren koordinatzaile den Gonzalo Duogaz egon gara, liburuaren nondik-norakoak kontatu diezazkigun.

—Zer gai lantzen da liburuan?

—Liburuan 2009 eta 2010ean Plentzia eta Uribe Kostako Historia II eta III jardunaldietan egindako komunikazioak bildu nahi izan ditugu. Eta bertan landu tako gaiak, besteak beste, honakoak dira: ontzigintza, Nautika ikasketak, erreka ikuspegi biologiko eta arkitektonikotik, gerra zibilen ondorioz eragindako eraldaketa sozialak, eta jarduera komertziala mendeetan zehar.

—Liburua harpidetza bidez argitaratu edo banatu da, ezta?

—Bai. Izan ere, Plentziako Udalak jardunaldietarako eskaintzen dituen aurrekontuak ez ziren nahiko liburuaren argi-

talpena egiteko. Eusko-Ikaskuntzako argitalpen guztiak bezala, lana ebaluatuta egon zenean sarean jarri zen. Gaur egun, udalen eta Eusko-Ikaskuntzaren artean dauden hitzarmenak kultur gaiak argitaratzeko ehun baino gehiago dira. Horien

«Ontzigintza, mendeetako jarduera komertziala, nautika e.a. dira gai batzuk»

artean, gurean, Urdulizekoa ere sinatu barria da.

—Plentziako Historia-jardunaldiak gero eta arrakastatsuagoak dira?

—Lehenengo jardunalditik 60-80 pertsona bildu ditugu. Aurrekusi ohi dugu saioak 80 ikasle izango dituela; izan ere, bertaratutakoak Historia ikasletzat hartzen ditugu. Gainera, liburua erosi dute-nak ere asko dira. Hortaz, esan genezake Plentzia eta Uribe Kostako maila kulturala nahiko altua dela. o

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogaria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 62 43 / 607 962 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

PLENTZIAKO EAJ ALDERDIA UDAL-GOBERNUTIK AT

Plentziako EAJk Independenteeek aurkeztutako aurrekontuen aurka bozkatu zuen aurreko urtarilaren 24an. Ondorioz, Plentziako independenteeek EAJko zinegotziak Udala-Gobernuztik botatzea erabaki zuen. Independenteen esanetan horrelako afera garrantzitsuan jeltzaleen babesa behar zuten. Bestalde, jeltzaleek ez ei zieten aurrekontuei oniritzia eman diru-partidakaz ados ez zeudelako. Bilduk ere ezezkua eman zien; hortaz, ez zuten aurrera egin. Aurrekontuak ez onartzearen ondorioz, behin-behinean, aurreko aurrekontuak luzatu dituzte.

URDULIZEKO UDALA DENDARIAKAZ HARREMANETAN

Daborduko, aurreko ere, Urdulizeko Udala dendariakaz harremanetan hasi da Urdulizeko komertzioa sustatzen jarraitzeko asmoagaz. Udalaren aburuz, komertzio eta udalaren arteko harremanak bermatu beharrekoak dira beraien egoeraren barri izan, eta herriko komertzioa sustatu ahal izateko. Horrez gain, Udalak proposatutako ekinbideen artean, dendarien arteko batasuna lortzeko bideak proposatu ditu. Aurreko hilean Udala, Behargintza eta Urdulizeko dendarien arteko bilera egin zen.

Mankomunitatea

Ingurunea, Berdintasuna eta Euskara kaltetuenak aurtengo aurrekontuetan



Aurrekontuak, oraingo, behin-behinekoak dira

Urtarrila heldu eta berehala, udalek aurrekontuak onartzeari ekiten diote, eta Uribe Kostako Mankomunitatean ere gauza bera gertatu da. Horrela, daborduko, Mankomunitateak 2013rako aurrekontuak proposatu ditu. Iazko aurrekontuak alderatuta: gizarte eta kultura-arloetan egin diren murrizketak. Guztira aurtengorako proposatutako aurrekontua 2.918.289 eurokoa da, pasa den urtekoa baino 117.895 euro gitxiago. Murrizketek hiru arlori eragingo diete gehien: Inguruneari, Aukera Berdintasunari eta Euskara Bultzatzeko partidari. Ingurune sailean, berbarako, aurreko 826.780 euroko partida izango da, iaz baino 65.229 euro gitxiago; Berdintasunean, ostera, 101.029 euroko aurrekontua izango da inbertitzeko, guztira, 15.315 euro gitxiago; eta azkenik, Euskara sustatzeko 186.535 euro erabiliko dira, iaz baino 13.781 euro gitxiago, alegia. Horrenbestez, ai-

patutako horiek izango dira, batik bat iazko eta aurtengo aurrekontuen arteko ezberdintasun nabarmenenak. Mankomunitateak adierazi legez, murrizketak Rajoyren dekretuaren ondorioz ezarritako gastuen sabaiaren ondorio dira; hau da, euren esanetan aurtengo aurre-

**«Guztira, iaz baino
117.895 euro gitxiagoko
aurrekontua izango du
Mankomunitateak»**

kontuek ezin dute gainditu Espainiako Estatuak ezarritako gastu-muga. Bildu koalizioak erreklamazioa jarri zien proposatutako aurrekontuei; horrenbestez, oraingo, behin-behinekoak dira, proposamena. Hala, hurrengo asteotara luzatuko dute onartze-prozesua, behin betikoak izan arte. Mankomunitateko arduradunek adierazi dutenez, murrizketek ez dutela eraginik izango programetan, ekintza zehatzetan baino. ○

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Ots. 11 - Ots. 25

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ZINEMA

LEIOA

► **Zinegoak**. Otsailak 13 eta 14. Kultur Leioan.

BARRIKA

► **Alvin y las ardillas III**. Otsailak 15, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoa (Goierrin).

SOPELA

► **Zinegoak**. Otsailak 15, 20:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.
► **Malutatxo**. Otsailak 17, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean.
► **Pago justo**. Otsailak 21, 18:00etan. Kurtzion. Doan.

GETXO

► **La conspiracion**. Otsailak 15, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 2,90 euro.
► **Campanilla y el secreto de las hadas**. Otsailak 17, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 2,10 euro.
► **Blancanieves**. Otsailak 22, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 2,90 euro.

ERANDIO

► **Asterix y Obelix**. Otsailak 16, 17:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.
► **El hobbit**. Otsailak 16, 19:30etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.

GORLIZ

► **El silencio del mar**. Otsailak 20, 18:30etan. Sertutxenan. Doan.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Ipuin-kontalariak**. Otsailak 13, 18:00etan. Altzagako liburutegian.



Antzezlaren irudi bat. ARGAZKIA: ARTEDRAMA

► Antzerkia

Publikoari gorroto Getxon, otsailaren 23an

Huts Teatroak antzeztuko du *Publikoari gorroto* lana Getxon, Areetako Andres Isasi musika eskolan, otsailaren 23an. Xabier Mendigurenen testua zuzentzen du Manex Fuchsek eta taulara igoko dira Ander Lipus, Miren Tirapu eta Iñaki Ziarrusta aktoreak. Teatroari buruzko hausnarketa jostalari moduan hasten da obra, publikoarekiko keinuz eta umorez; apurka, ostera, arimaren barrunbe ilunenak joango dira agertzen: krudelkeria, bortxa, botere-harremanak... giza izatearen amildegi ertzera iristeraino. Aktore bat, ikusle bi, agertoki bat. Besterik ez du behar antzerkiak: hortik aurrera hasten den jokoan dena da posible... Sarrerak 8 eta 10 euro ordaindu behar dira.

• **Non:** Areetako musika eskolan • **Noiz:** Otsailaren 23an, 20:00etan

► **Goenkale: kondesaren erretratua**. Otsailak 17, 19:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

► **Zu ere On Kixote?** Otsailak 23, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

GETXO

► **Ines Bengoa ipuin-kontalaria**. Otsailak 21, 18:00etan. Villamonteko haur-liburutegian. Doan.

► **Kontularien kluba: saio berezia**. Otsailak 22, 19:00etan. Algortako kultur etxean. Doan.

► **Jon beldurgabea**. Otsailak 24, 18:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 4 euro.

GORLIZ

► **Marta Agirrezabala ipuin-kontalaria**. Otsailak 23, 18:30etan. Sertutxenan. Doan.

LEIOA

► **Mas pequeño que el Guggenheim**. Otsailak 23, 20:30etan. Kultur Leioan. 12 euro.

MUSIKA

GETXO

► **Rebyrds**. Otsailak 14, 20:00etan. Romoko Billares tabernan. Doan.
► **Dani Merino**. Otsailak 21, 20:30etan. The Piper's Irish Puben.

LEIOA

► **Folkincats**. Otsailak 15, 22:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

SOPELA

► **Mugaldekoak**. Otsailak 22, 21:00etan. Kurtzion. 5 euro.

ERANDIO

► **Desidia + Hush**. Otsailak 23, 24:00etan. Sentinel tabernan. Doan.
► **Dantzaldia: Galea orkestra**. Otsailak 24, 17:30etan. Altzagako azoka zaharrean.

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Intervida: Eskola, etorkizun**. Otsailaren 15 arte. Goñi Portalen.

GETXO

► **Arte Ederretako ikasleen lanak**. Otsailaren 18tik martxoaren 2ra. Algortako kultur etxeko erakustaretoan.

BESTEAK

GORLIZ

► **Barreterapia-tailerra**. Otsailak 19, 17:00etan. Ikastetxean.

GETXO

► **Literatura solasaldia: Dracula**. Otsailak 21, 19:45etan. Algortako The Piper's Irish Puben.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]



Indarra vs oreka

Iragan urtarrilaren 28an itsasoa indartsu oldartu, eta izan lezakeen indarririk eta handiena erakutsi zigun. Gehienek ikuskizuna oinak lur egonkorrean zituztela begiratzea nahiago izan bazuten ere, ozeanoaren oldarraldiei aurre egin zietenak ere izan ziren; itsasoratu, eta oreka arma izanik, olatuen aparretik trebeziak ihes egin zutenak. Poza haien begietan; gitxi dira-eta, erraldoiak garaitzen dituzten orekadun iheslariak.

Argazkiak: **Hodei Torres**





Karmen eliza

Negurin, XX. mende hasieran

2010ean bete zuen ehun urte Getxoko Neguri auzoko Karmen elizak.

Mendeurrena ospatzeko, besteak beste, liburu bat argitaratu zuten Aita Agustindarrek: *El Carmen de Neguri: cien años para recordar*. Cesareo Miguelez del Rio elizako Agustindar nagusiak bildutako irudien artean agertzen da argazki hau, elizaren lehenengo urtetakoa. Argazkiez gainera, planoak eta egunkarietako artikulua batzen ditu liburuak, baita elizaren historia kontatu ere. Emiliano Amann arkitektoak diseinatu zuen eraikina eta Eusko Jaurlaritzaren interes-ondare da. Benetan deigarria da elizaren ezkerrean dagoen etxearen dorrea, egurrezko talaia antzekoa duena, gaur egun desagertuta dagoena.

El Carmen de Neguri liburutik hartua

[berbetan]

Munduko Olatu Handien Zirkuiturako puntuagarria izan da aurten, lehenengoz, Punta Galeako Olatu Erraldoien Txapelketa, eta parte hartzailerik gazteenak, Natxo Gonzalezek (Plentzia, 1995) jantzi zuen txapela urtarrilaren 28an. Txapelketa irabaztean, Txilen egingo den hurrengo probarako gonbidapen-txartela lortu du. 17 urteko plentziarra surfetik modu profesionalen bizi da dagoeneko, aurrerantzean ere ahal izatea espero du: *“aurten topera nabil, gau eta egun entrenatzen, surfean aukera bat izateko; batxilergoa modu librean egiten nabil, gurasoek aurten surfari aukera bat ematen utzi didate... Surfean orain delako momentua, gero ez dago aukerarik, top-40-ean sartzeko 40 urterekin oso zaharra zarelako; beraz, orain dut aukera”*.

Natxo Gonzalez

Handiei neurria hartuta!

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Hodei Torres**

—Zenbat urtegaz, non hasi zinen surfean?
—Sei urterekin hasi nintzen, Plentzian, udan, kortxoarekin, lagunekin... Konturatu nintzen oso gogoko nuela. Lagunekin, denon artean taula bat erostea erabaki genuen. Dirua batu, Eucaliptusera (Larrabasterrako surf-denda) joan eta ohola erosi genuen. Benetan gogoko nuen surfa, azkenean, neu geratu nintzen taularekin; eta beste lagun batekin batera, surfean jarraitu genuen. Ondoren, Aketza Sanchez ezagutu nuen, eta txapelketa batean parte hartu nuen Plentzian, Cabo Billano Team-ekoekin. Ander Mendiguren, Alex Gironi eta abarrekin gelditzen nintzen surfean egiteko... Hala, esperientzia hartzen joan nintzen... Plentzian ez zegoen klubik eta azkenean, olatuak Sopelan daudenez, egunero egoten direnez, bada Sopelara “joan” nintzen, eta Peña-Txuriko kide naiz. Han lagun asko ezagutu dut, txapelketa askotxo egin...

—Kanpoko olaturik hartu duzu, ezta?

—Hamabi urterekin txapelketa nahikotxo eginda nituen, esperientzia apur bat banuen, eta Espainiako Federazioarekin Marokora joan nintzen, Europa mailako txapel-

keta batean parte hartzeko deitu ninduten; irtetzen nintzen lehenengo aldia zen... Han oso ondo ibili nintzen, uste dut zazpigarren postuan gelditu nintzela... Oso pozik! Orduan ikusi edo konturatu nintzen surfetik bizi-edo nintekeela, hau da, modu profesionalen jardun nezakeela. Beste behin Kanariar Uharteetara joan nintzen, eta Australiara ere bai! Azken horretara Quicksilver team-arekin joan nintzen; eurek hurbildu zitzaizkidan, emaitzengatik edo, eta hori dut sponsor edo babesleztat. Australiara beste

“Eguraldiaren iragarpena, itsasoaren baldintzak eta, oso onak izan behar dute Galeara joateko! Eta taldean...”

lagun batzuekin joan nintzen, a ze poza! Gorka Iarritu team manager-arekin (taldeburu); oso ondo, primeran! Eta iaz Hawaiin egon nintzen neguan; maila handiko surfariak zeuden, eta izugarri ikasi nuen!

—Orain, ezagutzen dituzunen artean, zein da surferako zure lekurik gogokoena?

—Nire ustez, eta nire esperientziaren arabera, Mundakakoa da gustukoaren dudana ola-

tua, hoberena. Hawaiin egon naiz, olatu itzelak hartu ditut, onak eta handiak ere bai, baina Mundaka... Mundaka baino leku hobeagorik ez dago!

—Eta Uribe Kostakoei zer iritzi diezu?

—Galeakoa oso olatu potentea da, indartsua, oso handia, eta arriskutsua ere bai. Baina, errespetuz ibiliz gero... Adrenalina-jarioa izugarri azkartzen da, adrenalina “asko igotzen” da olatu handi horien aurrean! Meñakotzekoak ere oso-oso onak dira, oso potenteak! Eta arrokengatik, arriskutsua ere

bai. Sopela ere ona da, olatu oso konstanteak ditu, beti dauzka olatuak... entrenatzeko oso-oso ona da! Ez dauzka olatu onenak, baina konstante edukitze horrek, ona bihurtzen du, eta surfean jarduteko, ikasteko eta hobetzeko hori oso garrantzitsua da.

—Olatu erraldoien Txapelketa Punta Galean urtarril amaieran. Baldintzak ez ziren izan hoberenak, baina... 7-8 metroko ola-



tuak hartzeko aukera izan zenuten.

—Orain dela bi urte ere parte hartu nuen txapelketa honetan, hau da, parte hartzen dudana bigarren aldia da. Halere, aurrekoan, parte hartu nuen lehenengo aldi hartan, Punta Galean surf egiten nuen lehenengotarikoa aldia izango zen, ez dakit, baina esango nuke hura baino lehenago beste behin baino ez nintzela ibili ur haietan... Alex Gironirekin eta Ander Mendigurenekin, nire lagunekin, joan nintzen... eta beldurrarekin! Aurreko urte hartan, uste dut, lau olatu hartu nituela... XXL Big Wave Awards-era (Olatu handien Sariak) joateko izendapena lortu nuen, olatu oso handia hartu nuelako; izendapena baino ez zenez, bada hor lotu zen, beste barik... Baina niretzat oso interesgarria izan zen eta asko poztu ninduen!

—Zelan ikusten zenuen zuk horrelako proba bat lehen, lehorretik? Eta orain?

—Aurten ailegatu ginenean kontaratu ginen itsasoa oso txarto zegoela. Goizean, haize txarra zegoen, itsaso oso mugitua zegoen, olatu erraldoiak... olatuak hartzeko zailtasun handia igartzen zen. Ostera, itsasgora zegoen, eta finalerako hobeto jarri zen... Baina, zaila zen olatuak hartzea, arriskutsua. Agian, Galea ez da olatu erraldoi-erraldoiak hartzeko leku aproposena, 5 metro inguruko olatuak hartzeko bai, ondo, baina hortik gorakoak zailagoa da, oso mugitua dagoelako itsasoa, ez dakizu olatuak non apurtuko duen, nondik etorriko den... Halere, aurtengo txapelketa oso ondo irten da, batez ere niretzat! (kar, kar) Niretzat behintzat, bai; ezin hobeto!

—Olatu erraldoiak, arrokak, amildegia alde batean... Arriskutsua, benetan! Istripuak egon egon dira gainera, aurten ere bai!

—Bai. Ander Mendiguren eta motorra arroketa-joanaren joan ziren! Ander arroketa-joanaren eta motorra laguntzera zihoala hura ere arroken kontra! Aldi berean, beste partaide bat ere arroketa-joanaren zuten urak... Ez zegoen motorrik denentzat! Lau parte hartzaile taula barik zeuden, eta beste bi arroketa-joan! Gu taula ez zeukan bati laguntzen... Itsasoan taula barik, olatu erraldioen artean... Kristorena izan zen! Anderren bila joan zen

motorra olatu batek arroketa-joanaren bidali zuten, eta bigarren motorra laguntzera joan zenean, motor bi baino ez zeuden, hori ere arroketa-joan! Gero berreskuratu zuten, eta azkenean motor bakarraz egin zuten. Motor bakarraz zortzi parte hartzaileentzat... Apur bat arriskutsua izan zen, baina... ondo, oso ondo!

—Hori txapelketa zela, horretarako azpijaturarik (motorrak, ontzia e.a.) ez dagoenean

“Cabo Billanoko Aketzak behin esan zidan: “zu honetarako sortu zara!” Eta neuk ere baietz uste dut!”

zelan moldatzen zarete Galeako olatuetan?
—Galeara joaten garenean 4-5 lagun joaten gara, inoiz ez bakarrik! Eta baldintza onenak edo hoberenatarikoak daudenean. Txapelketa egunekoak ez ziren hain onak; argi dago istripu larriagoak gerta zitezkeen. Hori bai, baldintza onenetan, perfektu badago, benetan, itzela da! Eguraldiaren iragarpenak oso ona izan behar du, begiratu eta oso argi egon behar du Galeara joateko! Txapelketan itsasontziz heltzen gara, gainerakoan oinez joan behar duzu, arroka artetik, gero soka bat dago haraino heltzeko... heltzea ere ez da erraza! Kanal edo ubide bat ere badago sartzeko, eta txapelketa egunean itsasoa hain handi zegoen ezen ez zegoen ezta ubiderik ere!

—Zu gazteena eta zu irabazle! Surf-ohola barriakaz jardun zenuen gainera...

—Badut esperientzia Galean, baina ez hain-

“Hawaiin egon naiz, olatu itzelak, onak, handiak hartzen, baina Mundaka... Ez dago leku hobeagorik!”

bestelakoa; Jon Garai, Adur Letamendia, Asier Legarreta eta hauek esperientzia handiagoa dute. Beti irakatsi didate nola egin hau, nola egin bestea, eta harritura lotu nintzen lehenengo postua niretzat zela entzun nuenean! Ez nuen espero, benetan! Galea baldintza txarretan, mugituta eta, zegoenez, nik zail ikusten nuen, handiak ziren... baina,

zer edo zer egin behar nuela pentsatu nuen. Hainbat sponsor edo babesle ditudalako, Quicksilver, Pukas, DS, eta “hauei zerbait erakusteko zer edo zer egin behar dut!” pentsatzen nuen. Laguntza handia eman didate, eurengeatik ez balitz ezingo nuke honetan jardun; adibidez, Pukasek Galeako final honetarako taula berriak eman zizkidan, finaurrekoetan taula bat apurtu nuelako... Galeako

txapelketan, olatuetarantz itsasontzian gindoazela, besteak oso-oso urduri zeuden, eta nik esan nuen “bah! Urduritasuna hor, albo batera, utziko dugu, eta trankil-trankil joango gara”. Urduri jartzen bazara, ez dago ezer egiterik! Pazientzia handia eta nire buruarengan konfiantza handia izan nituela esango nuke. Bestela, akabo! Halako olatuzarrek! Batek harrapatuz gero, urduri bazau, ez duzu aguantatuko!

—“Hasiberriaren”, gaztearen zortea izan dela uste duenari zer esango zenioke...

—Beno... Cabo Billanoko Aketzak behin esan zidan “zu honetarako sortu zara!” Eta nik uste baietz! Txikitatik hasi nintzen berarekin... Gogoan daukat behin Azkorriara joan ginela, “El Acanti”-ko olatuak hartzera; heldu ginenean metro bateko olatuak zeuden, baina, itsasgorarekin 3 metroko olatuak

heldu ziren. Aketzak esaten zigun: “Goazen! Joan behar dugu...”, ni oso trankil nengoen, 11 urte izango nituen orduan. Olatuek beldurra... bai, ematen didate, baina... Olatuari begiratu eta “a ze beldurra”, baina buelta eman eta beherantz! Errespetu handia, bai, baina, azkenean “eman behar diozu”!

—Ramon Navarro olatu handietan aditu

txiletarraren adierazpenak: “bertoko surf-lariak ezagutza baliatu dute, etxeko olatuak ezagutzea abantaila izan da...”. Bat zatoz?

—Bai, noski. Ni orain beldur naiz Txilerako saria eman didatelako...

—Munduko olatu handien Zirkuiturako puntuagarria izan da lehenengoz Punta Galeako txapelketa; Txileko probarako gonbidapena lortu duzu. Parte hartzeko asmoz?

“Eskolara joan baino lehen surf egiten dute; eskolan ere ematen dute, hemen mate legez! Hemen bageneuka!”

—Hori da. Txilen egingo denez, bera izango da bertakoa, berak jokatu du ur ezagunetan. Beraz, alderantzizko egoera emango da han, eta nik horri beldur apur bat diot. Nik olatu hartaz ez dakit ezer ere, agian 9 metroko olatuetan sartzen gaituzte eta ez dut jakingo nondik hartu... Horregatik beldur naiz. Hemen horixe gertatu zen, guk oso ondo ezagutzen dugu Galea eta badakigu non jarri eta non ez. Finalurrekoetan Ramon Navarrok non jarri-eta ez zekiela esan zidan, baina finalerako neurria hartua zion! Bera “makina bat” da, badaki zelan mugitu! Txilera joan joango naiz, baina ez dut hainbeste arriskatu, Galeakoa ezagutzen dut,

baina hangoa ez; ea zer gertatzen den!

—Zuretzat, Punta Galeako eragiketarik, mugimendurik ikusgarriena zein izan zen?

—Olatu handiena Adur Letamendiak hartu zuen eta maniobrarik onenak Ander Mendigurenek egin zituela esango nuke. Olatua hartu eta hiru bira egin zituen! Taula horiekin maniobrak egitea oso zaila da, oso handiak direlako.

—Punta Galeako txapelketa honetan ez da inoiz emakumerik egon...

—Ez. Ufff! Letizia Canales ezagutzen dut, surf-lari oso-oso ona da, baina olatu handiekin... Joe... Uste dut “ezin” duela, baina ez dakit nola azaldu... Agian, ez dira ausartzen, baliteke beldurratik... Oso heavy-a baita! Niretzat ere, benetan, oso heavy-a da!

—Gainera, 3.000 euroko saria ere lortu duzu. Pentsatu duzu horregaz zer egin?

—Mentawai uharteetara (Indonesia) joatea da nire ametsa, edota Afrikara, han ei dago munduko olaturik onena... Mundakakoaren antzekoa: hodia, hobia, hodia... Oso luzea. Baina han itsaso handia uda aldean izaten da,

eta nik udan hemen txapelketa asko izaten ditut; eta ez dakit ba... Ahal badut... 3.000 euroekin, ondo, helduko zaidala uste dut!

—Zure gaztetasunean oraindik bete bako amets (egingarri) asko izango dituzu...

—Surf-ametsak, ezta? Nabiara joatea, olatu hori hartzera... Aritz Aranbururekin eta Gony Zubizarrekin Mentawaira, munduko olaturik onenetarikoetara... Eguraldi onenekin, trajerik gabe... gozatzera!!! Hori da surfa! —“Free-surfer” izateko aukera ere badago; gurean Kepa Acero lekuko...

—Horretan jarduten dutenak oso gitxi dira, Kepa Acero eta inor gitxi gehiago hemen. Halako bizimodua onena da! Olatu onenak hartzen dituzu; zu bakarrik, edo lagunekin... Hori surfean politena da! Baina oso zaila da horretaz bizitzea. Dane Reynolds ere free-surfer da... Oso ona izan behar duzu horretaz bizi ahal izateko!

—Zure surf-lari gogoan? Maisuak?

—Aritz Aranburu, Eneko Acero, Hodei Collazo... Beti nabil eurei begira, egiten dituztenetik gauzak ateratzen, ikasten, gero nik egiteko! Mundu mailan, Kelly Slater; baina niretzat munduko surf-lariarik onena Dane Reynolds da, baina lehiaketetan huts egiten du... David Bustamente “Zumo” eta Aritza Saratzaga aipatu behar ditut; olatu handietan barneratzen-eta irakatsi zidaten... ○

Harrobia eta euskara

—Euskal Herriak punta-puntako surf-lariak eman ditu. Harrobia zelan dator?

—Junior mailan zerbait lortzea, ona izatea, ez da batere erraza, surf-lari oso onak daude, jendea “aereoak”-eta egiten ari da dagoeneko; hori lortzea oso zaila da. Australian bizi bazara, agian... Han eskolara joan baino lehenago surf egiten dute, eta eskolan ere surfa ematen dute, hemen mate ematen dugun bezala! Hori hemen bageneuka!!! Kristorena izango zen!! Halere, nik uste, hemen, asko entrenatuz gero, eta burua ondo baduzu, lortu ahal duzula! Ni ho-

retan ahalegintzen nabil, ea zer gertatzen den... Hemen harrobi ona dago: Zarrutzen Imanol Ilegi, oso ondo egiten du surfean, hemen Alex Iriondo... Horiek etorkizun ona dute, eta asko entrenatuz gero, uste dut zerbait lor dezakegula!

—Eta Uribe Kostakoa?

—Ander Mendiguren eta Aletxu; oso onak dira, baina, egia da dagoeneko 20 urte dituzte eta... Nik uste eurek karrera bat edo egin nahi dutela. Ni egiten ari naizena eurek egin zuten, eta beraiek erabaki-edo egin zuten: “ni ikastera noa, hemen ezin dudalako ezer egin...”. Orain, Adrian Fernandez ere izugarri ari

da entrenatzen, ea etorkizunean zer edo zer egiten duen...

—Zelako bizimodua daroa euskarak surfean?

—Ona! Eneko Acero eta hauek beti... Adibidez, australiar batekin egiten dutenean entzuten duzu: “Eskerrik asko! Eskerrik asko, Eneko!”. Batzuetan harrituta gelditzen zara, australiar bat euskaraz gauzatxoak esaten entzutean! Gure artean, beno... Ni, hemen, erdi eta erdi edo aritzen naiz, erdia euskaraz, beste erdia gaztekeraz... Baina, Gipuzkoa alde-bera bazoaz, den-denek hitz egiten dute euskaraz! Oso ondo dago...



Eztei-irudi bereziak

Zure ezkontzaren historia kontatuko du Miguel Azera argazkilariak, enpresaren leloak dioen moduan: *“Con Acento”*... azentuagaz. Izan ere, kutsu berezia emoten die ezkontza-erreportajeei, argazki-kazetaritza estiloagaz. Hamar urte daroa gai hori lantzen: *“Dokumental estiloa emoten diot, ezkontza lehen pertsonan kontatuz”*. Argazki naturalak dira, emozioz beteak. Irudi gehiago topa daiteke interneten: blog.conacentofotografia.org. UK-ren azalaren argazkia, barriz, Martin Mendez lankideak egin du eta hark ere erakusten du bere lana sarean: www.martinmendezphoto.com.

Argazkiak: **Miguel Azera**





Eskola txikiak > txikitasunean urrats handiak emanaz

Adin aniztasunean haziz, hezteko beste bide bat urratzen

Nahiz eta eskola txikien hazia duela hamarkadak Gipuzkoan erein; Bizkaia aldean ere, eskola txikien eredu urteetan zabalduz joan da. Baina, gaur egun, zein ete da herri txikietako eskolen egoera? Zein da euren berezitasun handiena? Eta garrantzitsuenak: etorkizunik ba ete daukate?

Hamarkadak igaro dira lehen eskola txikia sortu zenetik; ordutik ugari loratu dira bailaretan, baita gurean ere; Lemoizeko eskolak aurten 11 urte bete du; 10 ikaslegaz hasi bazen ere, aurten 74 ikasle ditu. Bada, eskola txikien hazkundera nabarmena izan da azken urteotan.

Egun, Bizkaian 24 eskola txiki inguru dago; horietan guztietan, eta eskola txikien adierazgarri nagusi gisa, adin aniztasuna dago; izan ere, adin ezberdinetako ikasle-



Bizkaian 24 eskola txiki dago

ak nahastuta daude. Horrela, nagusienak txikien gidari eta laguntzaile handienak izan ohi dira. Bizkaiko eskola guztiak modu autonomoan lan egin dute, ez

dago komunean eskola guztiak jarraitu beharreko irizpiderik. Halere, badira lau eskola Bizkaian, elkarregaz jarduteko ko-

Zeberio, Areatza, Arrankudiaga eta Arteako eskolek mintegi komunak daukate

ordinazioan dihardutenak; Zeberio, Areatza, Arrankudiaga, eta orain Arteako eskolek metodologia lantzeko mintegi komuna martxan jarri dute. Horren bitartez, hezkuntza metodologia koordinatu ez ezik, komuneko irizpideak ere zehazten dihardute.

Metodoez solasean

Metodoaren inguruan, esan bezala, Bizkaiko eskola txikiak ez daukate ados-



Lemoizeko eskola txiki lotzen ari zaie

tasun komunik; bai, ordea, aipatutako Zeberio, Areatza eta Arrankudiagako eskolek. Gipuzkoan, bestalde, badaukate irakasle guztiak parte hartzen duten metodologia-mintegia. Halere, Bizkaian ere askok eta askok metodologiak lantzeko saiakerak egiten dituzte, adin aniztasunari dagokion metodo egokia erdieste-

ko; hala nola, eskola txiki batzuek proiektuen bitartez lan egiten dute; testu-liburuak baztertu eta irakasleek beraiek sortutako materialagaz lan egiten dute. Joera hau erabat finkatuta egon ez arren, asko dira proiektuen bitartez lan egiten dutenak; eskola osoan irakasleek gai bat aukeratzen dute, eta alor

ezberdinak lantzen dituzte horren bitartez; matematika, ingurunea, euskara... edozein umek eskola handian lan ditzakeen gauzak lantzen dituzte eskola txikietako umek ere; hori bai, bestelako metodologiak erabiliz; horrela, adin aniztasunari erantzun ahal izateko.

Bizkaiko eskola txikiak

Nekane Otxoa Arrankudiagako eskolako zuzendaria eta urteetan bertan hezitzaile aritutakoak adierazi duenez Bizkaiko

Bizkaiko eskolen egoera ona da; halere, eskolek ez daukate esparru komunik

eskola txikien egoera ona da; une honean aurrerapausorik eman ez duten arren, atzerapausorik ez dutela eman adierazi du; hortaz, baliabide berberak eskura dituzte. Halere, berak adierazi legez, erronka dauka Bizkaia mailan esparru komunak lortu, alor pedagogikoa aurrerapausoak emateko; horrela, apurka-apurka Gipuzkoan daukaten koordinazio eredura hurbil daitezten; batasunak indarra ematen ei du-eta. ○

Natxo Hormaetxea > Lemoizeko eskolako zuzendaria

“Umeak beti daude prest gauza berriak ikasteko; baina, agian, ez beti, testu-liburuan agertzen dena irakurriz ikasteko”

—Zeintzuk dira Lemoizeko eskola txikiaren berezitasun handienak?

—Eskola txikietan gertatzen den bezala, adin-aniztasuna Lemoizen ere ezaugarri nabarmena da. Lehen derrigor gertatzen zen adin-aniztasuna; gaur egun, barriz, nahiz eta posible izan adin berekoak elkarregaz egotea, nahiago dugu adin-aniztasuna gordetzea. Izan ere, zinez uste dugu horrela lan egiteak abantailak ekartzen dituela; txikiak nagusiengandik

asko ikasten dutelako, baina ez hori bakarrik, nagusiek ere asko ikasten dute horrela. Askotan txikiak eurek irakasten diete, eta beraiek dakitena erabiltzea ariketa pedagogiko oso eraginkorra da. Elkarreragina oso garrantzitsua da.

—Zein da Lemoizeko eskolan erabiltzen den irakasteko metodoa?

—Une honetan, Bizkaiko eskola txikien artean ezberdintasunak badaude ere, guk aukeratu dugu lan-proiektuakaz

lanean aritzea; uste baitugu hori dela modurik onena ikasleek konpetentzia guztiak gara ditzaten. Horrela, guk zera egiten dugu; hiruhileko bakoitzean eskola osoak proiektu komun bat gartzen du; umeen laguntzagaz gai bat aukeratzen dugu, oraingoan, esaterako *ibilgailuak* da gaia. Eta hori erabiltza, arlo guztiak lantzen ditugu: natur-zientziak, matematikak, gorputz-hezkuntza. Beraz, guk ez dugu testu-libururik erabil

tzen. Umeak beti daude prest gauza berriak ikasteko, jakinmin handia daukate eta. Baina, noski agian ez daude prest egun horretan testu-liburuan tokatzen dena ikasteko.

—Zelakoa da gurasoen parte hartzea?

—Gurasoen parte hartzea ez da beti bera izan. Izan ere, eskola hau gurasoen eskaraz sortu zen; garai hartan gurasoen parte hartzea handia zen, inplikazio handia zuten. Ondoren, gauzak normalizatu ziren, hau da, inplikazioa jaitsi egin zen. Gaur egun, ostera, inplikazioa berpizteko asmoagaz gaude. Gurasoen parte hartzea oso garrantzitsua da; izan ere, gurasoek eta eskolak batera joan behar dugu, elkarri lagundu behar diogu.

—Zein zailtasun dauka Lemoizeko eskola txikiak?

—Gure kasuan, momentuko zailtasun handiena espazioa da. Gure eskola txikia bada ere, dagoeneko espazio falta dauka, txiki lotzen ari zaigu eskola. Bada-roagu denbora luze delegaritzari eskaria egiten eskola berria egiteko. Jakin badakigu una ez dela egokiena eskaria egiteko. Gainera, guraso eta udalagaz elkarlanean aritu nahi dugu hori lortzeko. Hori da daukagun erronka bat. Bestalde, irakasle-entzuten finkotasun-ezak zailtasunak dakartza; batzuk ez daude ohituta gure moduan lan egiten eta hori oztupoa da. Halere, oro har, nahiz eta finko ez egon, irakaslegoaren inplikazioa oso handia da. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO




GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Zinegoak eskualdean

Leioa, Getxo eta Sopelan emongo dituzte gay-lesbo-trans jaialdiko filmak



Zinegoak-en 10. urteurrena iragartzeko kartela

Bilboko gay-lesbo-trans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen 10. Zinegoak jaialdia egin da Bizkaiko hiriburuan urtarrilaren 31tik otsailaren 10era bitartean. 423 pelikula jaso ditu aurten jaialdiak eta 85 aukeratu dituzte sail ofizialean lehiatzeko: 17 film luze, 8 dokumental, 43 film labur eta 11 film labur-esperimental. Bertoko lanak 8 izan dira eta horietatik 3 euskarazkoak; antolakuntzatik azaldu dutenez, "Datu oso esanguratsua da guretzat, izan ere, ezin dugu ahaztu jaialdiaren helburuetako bat zinemagintza sustatzea dela Euskadin, GLBT gaia jorratzen duten Euskal Herrian egindako pelikulak topatzea oso

zaila bada, euskaraz eginikoak aurkitzea ia ezinezkoa egiten da, beraz, oso pozik gaude zentzu horretan, gure lanak bere fruitua badaukalako". Horrez gainera, aurten 6 antzezlanek osatu dute Zinegoakeko egitaraua.

Aurtengo Ohorezko saria Gaël Morel zinegile frantsesari emon dio jaialdiak, "bere lanaren kalitate artistikoa-

«Otsailaren 13an, 14an eta 15ean izango dira emanaldiak»

gatik, konpromiso sozialagatik eta zinemagintzan, antzezle eta zuzendari moduan ere duen ibilbideagatik".

Bilboko ekitaldiak amaitu dira, baina gurean aukera dago Zinegoakeko hainbat filmagaz gozatzeko: Kultur Leioan *Keep the lights on* (ingeles eta danieraz, gaztelarazko azpitoluakaz) film luzea eskainiko dute hilaren 13an eta *Olhe para mim de novo* (portugesez, gaztelarazko azpitoluakaz) hilaren 14an (emanaldi biak 20:00etan; egunean bertan gonbidapena eskatu); Algortako Villamonte kultur etxean hilaren 14an *Cloudburst* (Ekaitz-hodeia) pelikula eskainiko dute (20:00) eta Sopelako Kurtzio kultur etxean hilaren 15ean (20:00; doan) hainbat film labur pantailaratuko dituzte. ○

WAS-en laugarrena, laster

Talde **getxoztarrak Day** estudioko lan barria iragarri du **udabarri** hasierarako



Info+: www.wearestandard.net

We Are Standard taldeak azalean Joseph Wrighten "Versuvius in eruption" pinturaren (Vesuvio erupzioan; Londreseko Tate Modern museoaren baimenagaz) irudia eta *Day* izenburua izango dituen laugarren diskoa martxoaren 25ean kaleratuko duela iragarri du. Dance rock, punk funk, indie rock zein dantzalekurako musika jorratzen duen talde legez sailkatu duten talde getxoztarrak sona handia lortu du azken urteotan, eta ibilbide oparoa egin du: zale andana batzen dituzten hamaika kontzertu munduan zehar eta *3.000 V 40.000 W* (2006), *We Are Standard* (2008) eta *Great*

State (EP-a, 2011) diskoak, hainbat remix lan, zenbait kantaren bertsioak e.a. Aurrekoetan legez, lan barria ere Mushroom Pillow diskoetxeagaz argitaratuko dute.

Gaur egun Deu Txakartegi (ahotsa), Juan Escribano (gitarra), D.W. Farringdon (bateria), Jon Aguirrezabalaga (gitarra), Jaime Nieto (baxua) eta Jorge Fuentesek (bateria) osatzen duen taldeak Deustuko El Tigre estudioan grabatu du *Day*, eta aurreratu dutenez aurrekoak baino psicodelikoagoa eta ilunagoa da, ez hain "argitsua". Oraingoan, iragarri duten kontzertu bakarra Bilbao BBK Livekoa da. ○

kontzertua > Mugaldekoak

Berako taldeak iazko urrian plazaratutako *Begiak Lekuko* (Gaztelupeko Hotsak, 2012) diskoaren aurkezpen-birako kontzertua eskainiko du Sopelako Kurtzio kultur etxean hilaren 22an (21:00; sarre-ra: 5 euro). Hainbat geografiatako idatzia eta doinu gogoenetakoak oinarri, eta eurek sortutako kantuetak osatutako antologia da Mugaldekoak-en bigarren lana, taldeak azaldu legez, "euskarara ekarritako musika bildumatxoa". Diskoko hamabost abestiez gainera, musika, literatura eta irudiak buztartzen dituen ikuskizunagaz gozatzeko aukera egongo da Sopelan. Aurreratu dutenez, 80-85 minutu irauten duen emanaldiak "ukitu teatrala" ere badauka.

Info+: www.mugaldekoak.com


diskoa > Def con Dos

Hil honen hasierarako iragarri du Def Con Dos taldeak disko barria. *España es idiota* izena ipini diote bederatzigarren lanari eta betiko legez aldarrikatzaile, zirikatzaile, zuzen eta gordin dator rapa eta metala zein rocka buztartzen dituen talde ezaguna. Gaur egun, Strawberry, Peon Kurtz, Kiki Tornado, J. Al Andalus, Marco Masacre eta Ken Tzo HxC dira taldeko kideak; disko barria aurkezteko biran Euskal Herrian ere hainbat kontzertu eskainiko dituzte, besteak beste: Gasteizen (Jimmy Jazz aretoa; martxoak 9), Donostian (Doka Kafe Antzokia; martxoak 23), Bilbon (Rockstar aretoa; apirilak 6) eta Iruñean (Movie aretoa; apirilak 13).

Info+: www.defcondos.com

diskoak

A ala B
Willis Drummond
Bidehuts



Iturri askotako rock indartsua eskaintzen du barriro ere Lapurdiko taldeak laugarren lan honetan. Biniloan ere plazaratu dute "alde biko" disko hau, "beti izan naiz hirugarren bidearen aldekoa" badiote ere. Jurgi Ekiza (ahotsa, gitarra), Xan Bidegain (baxua), Rafa Rodrigo (gitarra) eta Felix Buffen (bateria, perkusioa) azken lana 10 kantuz osatzen da.

Atlantida
Seiurte
Baga-Biga



Durungaldeko taldeak seigarren diskoa kaleratu du. Ohiko pop-rock alaiari seriotasun edo iluntasun ukitua erantsi diote lan honetarako. Hiru urteko "isilunearen" ostean lokin (gitarra eta ahotsa), Ekain (bateria) eta Iñaki (gitarra) elortzatar anaiak eta Julen Oarbeaskoa (baxua) lehengusuak osatutako laukoteak Berriren grabatu du diskoa.

Xiberoko Sutondoan
Etxart / Larrandaburu
Elkar



Iaz zendutako Nikoren aita Dominika Etxarten omenez egindako DVD-a da *Xiberoko Sutondoan*. Lanak Etxart familia mahaiaren inguruan batu eta musika ibilbidearen (oro har, aita-semeak alkarre-gaz osatutako *Eperra* (2004) diskoan jasotakoez e.a.) eta beste hainbat konturen errepaso jasotzen du; Nikoren eta Dominikaren arteko elkarriketa mamitsua barne.

zure publizitatea hemen!
publiuk@aldizkaria.biz



Tf. 944 911 337

etorri
eta
ikusii!!

MORIXA
Liburudenda

Alargorta 8 (Euzko Herria kaleko bar) / Tf. 94 491 68 05 / Alargorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Alargorta

[literatura]

Liburu Gaztea lehiaketa

Bideo bidezko **liburu-aurrerapen**, **booktrailer** lehiaketa martxan

Zineman egiten duten legez, film aurrerapenak eskaintzen dituzten moduan, liburuen aurrerapen-laburpenak sortzea proposatzen du Liburu Gaztea lehiaketak. Pelikulen *trailer*-en antzera, liburuen trailerrak (ingelesez, *booktrailer*), liburuen bideo bidezko aurrerapen-laburpenak izango dira Liburu Gaztea lehiaketan parte hartzeko egin beharko diren sormen-lanak. Urteak daroaz Galtzagorri Elkarteak Liburu Gaztea lehiaketa antolatzen, aurreko liburuetan oinarritu dute lehia. Ikastetxe eta ikastolez gainera, 12 eta 16 urte bitarteko edonork parte har dezake lehiaketan, eta lanak martxoaren 15a baino lehen bidali edo igo beharko dituzte Liburu Gaztea webgunean. Sariak boto gehien jasotzen dituzten

«Ikastetxez gainera, 12-16 urte bitarteko edonork parte har dezake»

booktrailer-entzat izango dira, eta martxoaren 15etik maiatzaren 15era egongo da bozkatzeko aukera.

Lehiaketan parte hartzeko Galtzagorri Elkarteak liburu-zerrenda bi proposatzen ditu: "Aurtengo proposamena" eta "Ez-inbestekoak". Horietatik partehartzaileak dagokion adinerako proposatutako liburuak

liburuak



Mundua berdea ote da...
Juan I. Mendizabal
Erein

Mundua berdea ote da dena? Liburuaren istorioa eta marrazkiak Juan Inazio Mendizabal donostiarrek egin ditu. Aurreiritzien arriskuak dihardu 6-8 urtekoei begirako lanak: Sator eta bere taldea ez dira inoiz atera sator-zulotik, gauzak kontatu dizkieten bezala ez direla pentsatzen hasi dira.



Zalduaren *Azken garaipena* proposatuen artean

ruetako bat irakurri beharko du, gero horren gainera liburu-aurrerapena egiteko. Besteak beste, proposatzen diren liburuak hauek dira: *Pozoia kopan* (D. Baccalario, A. Gatti), *Zenbat lur behar ditu gizon batek?* (Lev Tolstoi/ itzul.: Elena Odrizola), *Azken garaipena* (Iban Zaldua) eta *Neure buruaren alde* (Koldo Zuazo).

Liburu-aurrerapenen bideo-lanak egiteko jarraibide, xehetasun, gomendio eta pausoz pausoko azalpenak Liburu Gaztearen web guneko "Booktrailerrak" ataleko "Nola egin" azpiatalean daude. o

Info+: www.galtzagorri.org/liburu-gaztea/2012-2013



Sinplistik
Hedoi Etxarte
Susa

Gaur egungo bizimodu arruntaz, modu gordinean, kritikotan, tonu salagarrian, zurikeriak aurpegiratzen, idazkera zuzen eta zirikatzailean... dihardu Iruñeko idazleak poema liburu honetan; amodio, sexu, lan, langabezia, gizarte, kultura, ideologia, politika, kapitalismo, borrokaz e.a.

[kirola]

25 urtez egurra emoten!

Getxo Rugbyko emakume-taldeak **25 urte bete** du eta **ospatzera doaz**



Info+: www.getxorugby.org

Zaletasun handiko kirola da errugbia Getxon eta horren erakusle da bertako taldearen maila. Aurten, gainera, 25 urte bete du emakumeen taldeak eta ospatzera doaz; daborduko hasi dira: abenduan jokatu zuten partida Baionakoaren aurka.

Silvia Ruiz taldeko ordezkariak azaldu duenez, Aste Santuan Ingalaterrara joan gura dute hango hainbat taldeagaz jokatzeko, horixe izango da ospakizun bereziena. Baina, bidaia ordaintzeko, dirua behar dute eta lortzeko ekimenak egiten hasi dira. Berbarako, Santa Ageda bezperan eskean atera ziren Algortan, kantu kantari, eta otsailean kiniela egiten ari dira gizonen koparen partidetan: taldearen tabernan eta zelaian egin daiteke apustu zeinek irabaziko, eta otsaila akabuan jakinaraziko dute irabazlea nor den.

Horretaz gainera, egutegia osatu dute eta salgai ipini daukaten tabernan, baita Bidezabaleko La Estacion de Chocolate kafetegian ere. Bestalde, umeen Bizkaiko

errugbi topaketetan bazkariak emoten ari dira: hurrengo izango da otsailaren 23an eta gizonen Kopa partida ere ikusi ahalko dute bertaratzen direnek.

Horiek denak eta gehiago egingo dituzte dirua biltzeko, baina ekitaldi gehiago antolatzen ari dira zilarrezko urteurrena merezi moduan ospatu ahal izateko.

«Aste Santuan Ingalaterran jokatu gura dituzte partidak hango taldeen aurka»

Ildo horretan, taldean jokatu duten emakume danak elkartu gura dituzte maiztean edo ekainean, eta jai batez ospatu: atzoko eta gaurko jokariak batu gura dituzte. Gainera, Getxo Rugbyko beterranoak bazkaria egiten saiatuko dira Kopako partidak amaitutakoan, apiril akabuan; emakume zein gizon, danak elkartu gura dituzte Fadurako erretegian.

Getxo Rugbyko emakume-taldeak Euskadiko 24 txapelketa irabazi du, baita Espainia mailako txapelketa bi ere. o

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Dead Bronco musika-taldea > CINEMAD lehiaketaren irabazleak

“Denok batera grabatu dugu diskoa, zuzeneko kontzertuetan bezala”

Paco Sanchez (ahotsa eta gitarra akustikoa), Oscar Calleja (kontrabaxua), Alain Llopert (banjoa), Jokin Corral (kaxa flamenkoa) eta Jokin Totorikak (lap steel) osatzen dute Dead Bronco talde uribekostarra; eta batera zein bestera laguntzen die Ainhoa Sanzek. Orain gitxi irabazi dute CINEMAD bideoklip-lehiaketa, Mancuso ekoiztetxeak egindako lanagaz, eta apirilean kaleratuko dute lehen diskoa.



Bideoklipa eta ekarpenak: vimeo.com/51471365 eta www.pledgemusic.com

—Lehiaketa irabazi du zuen bideoklipak, baina denbora gitxi dauka taldeak.

—Duela bederatzir hil inguru sortu zen Dead Bronco, aurreko talde batetik gertzen ginen lagun batzuen artean. Beraz, elkarregaz jotzen ibili gara azken hiru urteotan edo. Kanean ezagutu genuen elkar: kanean jotzen; Oscar apur bat beranduago iritsi zen, baina bakoitzak ibilbide luzea zeukan aurretik ere. Apurka hasi gara abestiak konposatzen eta egun 12 inguru dauzkagu.

—Eta bideoklipa grabatu zenuten.

—Grabatzera gindoazen diskoa sustatu gura genuen eta lagun batez egin genuen, mundu horretan nahiko ezaguna den ekoizleagaz: Tucker Davila. Asmoa zen bideoklipa sare sozialetan erakustea, baina Tuckerrek lehiaketara bidali zuen, guk jakin barik. Gainera, gu jotzen grabatu ostean, AEBra egindako bidaia bateko irudiak nahastu zuen eta harritu ginen emaitza ikustean. *False hearted lover (indio)* bilatuta topa daiteke, baita *vimeo* webgunean ere.

—Sariak gehiago lagunduko dizue orain sustapenean?

—Bai, noski. Bideoa ikusi ostean jende

askok deitu digu kontzertua eskatzeko; daborduko 10.000 bisita jaso du.

—Eta laster diskoa kaleratuko duzue.

—Grabatuta daude abestiak, orain nahasketak eta konponketak egin behar dira. Azken horrek emongo du lan gehien; izan ere, grabaketa berezia izan zen: denok batera grabatu genuen, zuzeneko

tza dugunik, nahasketa handia dago: emon dezake country edo helbilly sumatzen da, nork bere ekarpena egiten diogu. Guk Broncobilly esaten diogu.

—Zelan finantzatu duzue diskoa?

—Orain modan dagoen finantzaketa metodoa erabiltzen ari gara: norbanakoen ekarpenak biltzen ditugu webgune

“Gure estiloa askotarikoa da, nahasketa handia; nork bere ekarpena egiten dugu, guk Broncobilly esaten diogu”

kontzertuan bageunde bezala. Azken batean, kontzertuen soinua lortu gura dugu, benetako soinua: alderik ez egotea diskoaren eta zuzenekoaren artean. Hamar kantuk osatuko dute, ingelesez, abeslaria Floridakoa da-eta.

—Estilo aldetik, zein soinua daukazu?

—Askotarikoa da, ezin esan estilo zeha-

baten bitartez: www.pledgemusic.com; zenbatekoaren arabera gauza desberdinak eskaintzen ditugu ordainetan.

—Eta asko jotzen zabiltzate?

—Etengabe, astean behin edo birritan; batez ere inguruan, baina kanpora ere joan gara, Kantabria edo Madrilerara adibidez. Espero dugu horrela segitzea. ○

Aritz Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoak. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikoimitologia.com webgunera jo.

Mikelats eta Atarrabi Kontrarioen betiko gatazka



Mikelats eta Atarrabi. Ilustrazioa: Daniel Castello

Mikelats eta Atarrabi, elkar ulertu eta borrokatu behar duten anaiak.

Anaitzen diren etsaien guda, edo guda egiten jolasten duten pare bi anai(a).

Hori guztia baino gehiago.

Eguna edo gaua, luzea ala motza, ona edo txarra, beroa ala hotza.

[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3, C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



LA LURREN

GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Asador Cervecera BERANGO

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina trianguretan
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak
Pollo asado, txulettones, albias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad

EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34



Berango



JAN TOBI ORMAZABAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO

Ahate lumatxoak

gazia eta gozoaren arteko guda ederra



Getxo Onegineko Hizkuntza-paisaia egokienari saria irabazi zuen abenduan Sustrai tabernak

Abendu akabuan Getxoko IV. Pintxo lehiaketa izan zen; hainbat sari banatu ziren, horien artean, Hizkuntza-paisaia saria, Sustrai tabernakoek irabazitakoa hain zuzen. Ostera, oraingoan Sustrai tabernak lehiaketan aurkeztutako pintxoaren barri ematera gatozkizu. *Ahate lumatxoak* deritzon pintxo gozoa bezain sinplea da. Horra hor, jarraitu beharreko urratsak; hasteko, basafruitu-erredukzioa egin behar duzu, horretarako, masustak, andere-mahatsa, mugurdia, ahabia, besteak beste, erabiliko ditugu. Bestalde, Smith sagarra labean sartuko dugu deshidratatzeko, eta gero fin moztuko dugu. Horrez gainera, tipula ardo zuriagaz egosiko dugu, eta azukrea ere botako diogu tipula

gozotzeko. Izan ere, tipula karamelatua erabiliko dugu pintxoan. Behin tipula karamelatu dugula, pintxo eraikitzen has gaitezke; lehenengo eta behin, ogi-xerra txigortuaren gainean, tipula karamelatua jarriko dugu, ondoren, ahuntz-gazta zati bi, eta ostean, aurretik erretako sagar zatiak jarriko ditugu. Horren gainean ahate-urdaiazpiko zati bat jarriko dugu, eta amaitzeko, basafruitu-erredukzioa jarriko diogu, eta intxaur zatiak gainetik botako dizkiogu. Eta hori eginda, *ahate lumatxoak* pintxo jateko prest izango dugu. Sor-tutako ahogozoa sekulakoa izango da. ○

Osagaiak: tipula, basafruituak, sagarra, ahate-urdaiazpikoa, ahuntz-gazta, intxaurrak, ardo zuria, azukrea, ogi txigortua



txakoli mota gane Tx. txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 | Aklarlana Parkea | Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI

edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxareriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

zure publizitatea hemen!

publiuk@aldizkaria.biz

Tf. 944 911 337

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Aurten ere ez duzu mozorrotu gura? Koadrilatik botako zaituzte azkenean eta ez dizute utziko eurakaz joaten inauterietan. Animatu, kalterik ez dizu egingo mozorrotzeak.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Azterketak amaitu baina atsedean hartzeko tarterik ere ez dizute utzi eta hamaika lan egiteko agindu dizu irakasleak, barriro ere. Bidal egizu haize freskoa hartzen!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Zapatuan lagunakaz parrandan urten eta, gaueko ordu txikitari, betiko txolina etorriko zaizu. Gogaitzen zaituela esan beharko diozu zuzenean, aspertu orduko.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Gabonak ia igaro barri eta Aste Santurako planak egiten zabilzta daborduko, zu beti horen fin! Animo eta ekin bilatzeari, hegaldi merkeak topatuko dituzu-eta!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Inauterietako sorpresa izango zara eta danak utziko dituzu ahozabalik. Beti daukazu ideia onen bat pentsatuta mozorro aparta egiteko. Lagunek zuri begiratuta ikasi beharko lukete...

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Nekatuta zabilzta azken aldian, lazтана! Hainbeste lan daukazu pilotuta ezin lotu zabilzta. Utzi jogurt miragarriak hartzeari eta hartu atsedean, hori baino hoberik ez dago indarbarritzeko!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ene! Urtero legez, sasoi baino lehenago harrapatu zaitu udabariak eta hor zabilzta lorez lore. Zer, polen bila ezitia egiteko ala? Inor mindu barik segi ondo pasatzen, zer demontre!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Hain gustuko duzu eskiatzea, hainbeste ekin eta ekin, azkenean min hartu duzu belanean. Ez egizu burua gal eta egin kasu medikuari, herren lotuko zara bestela!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Zenbat denbora emoten duzu egunero ispiluaren aurrean margotu eta orraztu? Etxekoak aspertzen hasita daukazu eta, azkenean, txandak antolatu beharko dituzue komuna erabiltzeko...

META



(Irailak 17 urriak 16)
Hainbatetan saiatu otean lortu duzu txapelketa irabaztea eta hurrengo erronka prestatzen hasi behar duzu. Laster dator Korrika 18 eta entrenatzeko balia dezakezu.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Udan etekin handia atera zenion ortuxoari baina, negua iritsi eta hotzak kalte ederra egin die landareei. Lasai egon, bitartean letxuga gozoak saltzen dituzte-eta supermerkatuan.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Azken egunotan ez zara portatu ondoegi eta gurasoek errieta egiten dizute egunero. Kontuz gero, badakizu-eta Olentzero beti ari dela zelatan, eta jostailuak atzera eroan ditzakeela, lehenago ekarri bezala...



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan





Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik



7 Aldeak

Aurki egizuz irudi bion arteko zazpi ezberdintasunak.



> Soluzioa

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Gure eskualdean non ospatzen dute San Blas?

- Berangon
- Barrikan
- Sopelan

La Gusana liburudenda **SARIA**
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Ez, amalurra esnarazteko ere bai
 > Irabazlea: **Andoni Sarasketa***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA *Oinutsik*
 kontsulta podologikoa
 Zubigane 4, Sopelana
 Tf. 94 404 74 20
 oinutsik@euskalnet.net 

> Aurrekoaren erantzuna: XIII. mendekoa
 > Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



LUIS MARI BILBAO TXURINE-KUTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

UDONDOTARRAK BERANGON, 1965

Berangoko Sto Domingo de Guzman herriko jaietan bakailao txapelketa izaten da, baina ez abuztuaren 4an, santuaren egun berean, baizik eta hurrengo domekan. Argazkikoa 9.a izan zen eta antolatzailea bertoko "Gure Txoko" aisialdi taldea. Datorren 2013ko abuztuko 57.a izango da.

Javi Llonak "vespa" motorrean eta Luis Mari Bilbaok "lanbretta" motorrean ekarri zituzten Leioatik Berangora argazkiko lagunak eta txapelketarako (eta eguna ongi pasatzeko) behar zen guztia. Agertzen den kopak aditzera ematen duenez, ez zuten oso txarto bakailaoa prestatu; sukaldaria, Segundo Zulueta, eskutrapua duena eta orduan Udondo tabernan zebilena. ○

Zutunik: Iñaki Elordui, Artatzakoa; Jose Fco. Torrontegi, iturri ondoko tabako-dendakoa; Joaquin Etxebarria, Bistalegrekoa; Juanjo Vega, Hezetasunekoa (Algorta); Javi Llona, ibaikoa; Jose Luis Txans, ibaikoa; Pedro M^a Zabala, ibaikoa; Segundo Zulueta, tabako-dendakoa; Paki Etxebarria, Bistalegrekoa; Juan Antonio Mota, algortarra.

Makurtuta: Juan Ignazio Aretxabaleta, Aretxabaleta etxekoa; *Txuriñe* Luis Mari Bilbao, "Txuriena" baserrikoa 1796tik horrela deitua, baina lehenago "Abranabekoa" deitzen zen; Luis M^a Zabala, ibaikoa; Jacinto Zabala (umea), San Juanekoa (Leioa).

ASIER SOTA JAIMERENA > aktorea

“Aspaldian ez dut egin erokeriarik; zenbat aldatzen ari garen!”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Testua: **EITB**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Alaia eta lasaia.

Interpretatu dituzunen artean, zein pertsonaia duzu gustukoen?

Denak izan dira politak, baina *Xabinator* obran Kortajarena ertzainarena egin nuen eta oso-oso polita izan zen.

Eta zer pertsonaiarena ez zenuke inoiz egingo?

Probatu gabe ezin esan horrelakorik.

Aitor dezakezun bizio bat?

Komikiak: baten bat aurrean edukiz gero arreta osoa jartzen diot.

Kolore horia, bai edo ez? Zergatik?

Lasai asko atera naiteke taulara horiz jantzita.

Zein da zure ametsetako bat?

Amesten jarraitzea.

Eguna ala gaua? Zergatik?

Eguna esna egoteko eta gaua lotarako. Gaueko parrandak ez ditut gustuko, dagoeneko ez naiz gautxoria, orain parrandak ere egunez.

Parrandarik politenak non?

Herri txikiatiko jailetan: hiru taberna eta pare bat txosnagaz pertsonarik zoriontsuena naiz.

Baduzu ezizenik? Zer dela-eta?

Abizenez deitzen dit askok: eskolan urte bi nagusiagoak hasi ziren *Sota* deitzen, nonbait grazia egin zien. Baina izenez ere deitzen didate.

Azken aldia egin duzun erokeriarik handiena?

Ez dut erokeriarik egin aspaldian; lasaitzen ari da nire burua, antza; zenbat aldatzen ari garen!

Nori egingo zenioke elkarrizketa hau?

Niri hilabete barru: dagoeneko beste pertsona bat izango naiz eta, agian, erantzunak desberdinak izango dira. ○

LABURREAN— ETB1eko DBH telebista-saioan filosofia irakaslearena egiten du Asier Sota Jaimerenak (Donostia, 1974). Sebas plastika irakaslearena egiten du eta laster hasiko dira grabatzen kapitulu barriak. Lehenago ere ikusia daukagu telebistan, Wazemank saioan. Baina antzerkian ere badabil Sota. Borobil Teatro konpainiagaz ari da orain, *Ali Baba eta 40 lapurrak* obragaz eta taldearen bigarren lana ere prestatzen ari da, *On egin!*; Donostiako Antzerki Ferian estreinatuko dute martxoaren 19an. Lotu barik, batera eta bestera, inork ez dio paperik lapurtuko.

E!
Erandio
Elizateko Udala

Altzagako azoka zaharra
(San Jeronimo 13)

GOENKALE

KONDESAREN ERRETRATUA

egilea:
Kepa Errasti,
Pausokako gidoigile taldea

zuzendaria:
JOKIN OREGI

ANTZERKIA

Doan,
eserleku
guztiak
bete
arte

OSTAILAK
17
IGANDEA
19:00 h.

pausoka • glu glu

XABIER PERURENA YLENIA BAGLIETTO FELIX ARKARAZO
MARIA CRUICKSHANK YANNICK VERGARA KARLOS NGUEMA

pausoka

elgoibar
biZi-biZiXal

MAQUILLAJE

L&J
Maquillaje

aitb

agua ura
ALZOLA

ELIZATEKO UDALA

glu glu



Udaleko
EUSKARA ZERBITZUA
94 48 90 128





ARTEDRAMA - KULTUR LEIOA

www.kulturleioa.com



PREZIOAK	BONOAK
6 € - 8 €	BONOMARATILA (6 ikuskizun): 30 €

OTSAILAK 28

"Irgan perfektua"

Horman Poster Kolektiboa
ANTZERKIA (ESTREINALDIA)

MARTXOAK 1

"Poza: Zergatik dantzatzen dute bosniarrek?"

Metrokoadroka kolektiboa
ANTZERKIA (AURRESTREINALDIA)

"Bi arreba"

Xabier Lizaso & Andoni Egaña
MUSIKA / BERTSOAK

MARTXOAK 2

"Biutz"

Rouge Eléa
ANTZERKIA / ZIRKOA / BIDEOA

Anari

ROCK

MARTXOAK 3

"Lingua nabajorum"

Tartean Teatroa /
Ez dok hiru bikoteatroa
ANTZERKIA / UMOREA



DISEINUA: Idoia Beratarbide & krea komunikación

Leioa 2013

ARTEDRAMA eta KULTUR LEIOAK elkarlanean sortutako programa kulturala. Antzerkia, dantza, bertsoa, musika, performance... uztartu eta plazaratzea helburu duena. Lau egunez publikoak **euskal sorkuntza** ezberdinez gozatzeko parada. Zabaldu maratila, ireki leioa.